



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016KO EKAINAREN 17AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Jesus Peñagarikano Labaka

Etorri diren zinegotziak:
Hanot Karrera Amondarain
Maria Iciar Jauregi Huarte
Victoria Rodriguez Feloaga

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko ekainaren 17an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2016KO MAIATZAREN 20KO AKTAREN ONARPENA

2016ko maiatzaren 20an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2016ko maiatzaren 20an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- 2016KO EKAINAREN 15EAN BURUTURIKO KIROL BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK

2.1 2016 URTEAN KIROL ARLOAN EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRIEN ONARPENA

2016. urtean kirol arloan emango diren diru-laguntzen oinarriak aztertzen dira.

2016ko ekainaren 15eko Kirol Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea 2016. urterako kirol arloan emango diren diru-laguntzen oinarriak.

BIGARRENGOA: Ibarako kirol talde eta elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko deialdia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

I.- ERANSKINA

2016AN KIROL ARLOAN EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, 2.artikuluan dio kirola dela interes publikoko gizarte-jarduera, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria. Era berean, artikulua horrek berak Aginte publikoak, beren eskumen-esparruen barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzera gonbidatzen ditu, horretarako sistema osatzen duten sektore eta jarduera desberdinen sustapena helburu duen kirol-politika garatuz.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak eta berori



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduak xedatzen dute tokiko udal diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan onetsi behar direla, edo diru-laguntzen ordenantza nagusi baten bidez, edo diru-laguntza mota ezberdinetarako ordenantza espezifikoen bidez.

2016ko martxoaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 57. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalen Diru-laguntzen Plan Estrategikoak arautuko ditu diru-laguntza hauek emateko baldintza eta prozedura.

Testuinguru horretan, Ibarra Udalak legeak xedatzen dituen sustapen-ekintzak gisa honetako jarduerak egiten dituzten erakundeei eginiko funts transferentzia bidez bideratzen ari da, kirol munduaren barruan hainbat tokitara iritsiz. Sustapen ekintza horiek aurrera eramateko, kasu batzuetan, lankidetzaz hitzarmenak sinatzen dira eta horietan jasotzen dira helburu zehatzak lortzeko aldeek beren gain hartu behar dituzten betebeharrak. Beste batzuetan, berriz, sustapena erakunde laguntzaileei ematen zaizkien diru-laguntza bidez gauzatzen da.

Diru-laguntzak iragarki, norgehiagoka, objetibotasun eta berdintasun printzipioen arabera emango dira, Herri Administrazioa haiei atxikita baitago, besteak beste, sustapen-jarduerak gauzatzekoan.

1. Xedea

Oinarri hauen helburua da 2016 urtean Ibarra kirol arloan emango diren eta 4. artikuluan aipatzen diren diru-laguntzen emakida arautzeko oinarri zehatzak ezartzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bertan jasotako arauak arautuko dituzte eta baita aplikagarri diren eta indarrean dauden gainerako xedapenek ere (Ibarra Udalen Diru-laguntzen plan estrategikoa, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak eta berori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduak).

2. Prozedura

Oinarri hauetako diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira, betiere printzipio hauek errespetatuta: publizitate, objetibotasun eta gardentasun, berdintasun, diskriminaziorik eza. Eskumeneko organoak onartutako deialdi publikoaren bidez egingo da deialdia.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Deialdi hau aurrera eramateko ezarritako diru-kopurua 48.000,00 euro izango da. Kopuru hori da 430.341.00.00 2016 partidaren kargatuko da.

Diru-laguntza emateko orduan zehaztuko da bakoitzari emango zaion zenbatekoa edota adjudikazio-irizpideetan lortutako puntuazioa. Zenbateko hori balorazio irizpideen arabera lortutako puntuaren arabera izango da, betiere interesatuak eskatutako diru kopurua gaindituko ez duelarik.

Zenbateko hori zehatza izango da, eta ez dio erreferentziarik egingo kostu osoaren zatikatze edo portzentajeari.

Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa, diru-laguntzak estaltzen ez duena, onuradunaren beraren funtsen bitartez estaliko da edo beste diru-laguntza edo baliabideen bitartez, beti ere, azken hori bateragarria baldin bada oinarri hauetan zehaztutakoarekin. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango inolaz ere, bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 baino handiagoa.

Salbuespen modura, aurrekontua izateagatik edo beste arrazoi bategatik, organo emaileak, aldezturik justifikazio-txostena egingo balu, diru-laguntzen zenbateko osoaren hainbanaketa egin dezake onuradunen artean.

4. Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programak

Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat jo daitezke udalerrian garatuko diren kirol jarduerak edo programak, bai eta xede-talde gisa ibarrako herritarrak dituztenak ere, honako modalitateak ezberdintzen direlarik:

- kirol jarduerak: urteko programa
- kirol jarduerak: jarduerak zehatzak

Diruz lagundutako gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epeen barruan egiten direnak.

Ibarrako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua aurrera eramateko lege- edo finantza-aholkularitza gastuak, notario-gastuak eta peritua-gastuak diruz lagundu daitezke baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta berorren prestakuntza edo gauzatze egokirako ezinbestekoak badira.

Diru-laguntzaren onuradun den elkarteak edo pertsonak jardueraren antolakuntzak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dakartzan ardurak beregain hartuko ditu, aipatu jarduera bermatzen duten beharrezko aseguru-polizak itunduz.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta diru-laguntzaren onuradun den elkartearen artean inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.

Diru-laguntza hauetatik kanpo geldituko dira kirol entitate eskatzaileak zuzenean antolatu ez dituen jarduera edo proiektuak.

5. Onuradunak

Arau hauetan jasotako diru-laguntzak eska ditzakete Ibarrako udalerrian egoitza edo ordezkari iraunkorra duten irabazi asmorik gabeko erakunde juridikoen, baldin eta 4. art. an jasotako jarduera programaren bat garatu nahi badute eta oinarri hauetako baldintzak nahiz diru-laguntzei buruzko araudiak ezarritakoak betetzen badituzte.

Diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte legez eraturik eta Eusko Jaurlaritzako kirol elkarte-erregistroan inskribaturik dauden Ibarran errotutako eta deialdi honetako jardueretara eskainitako erakundeak. Horrez gain, diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan xedatutako baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte.

Pertsona fisiko edo juridikoen osaturiko taldeek, publiko nahiz pribatu izan, eta izaera juridikorik ez badute, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa aginpiderekin, aplikatuko baitzaio 38/2003 legearen 11. artikulua.
- b) 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan tipifikatutako diru-laguntzaren itzulketa onartzeko edo kitatzeko preskripzio-epea amaitu arte taldea ez desegiteko baldintza beteko dutela adierazten duen zinpeko aitortza.

6. Baztertuak

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira ondorengoak:

- a) Ebazpen irmo bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko eskubidea galdu dutenak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- b) Konkurtso-deklarazioa eskatu dutenek, edozein prozeduretan kaudimengabe aitortua izan direnak, konkurtso-deklarazioan jada daudenak, esku-jartze judizialera lotutakoak edo konkurtso sailkapen sententzian ezarritako ez gaitasun epea amaitu gabe Konkurtso Legearen arabera ez gaitutako pertsonak
- c) Administrazioarekin eginiko edozein kontratu bertan behera uzteko errudun aitortuak izan direnak.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izan direnak sartuta daudenean kontratatzeko bateraezintasun kasuren batean, bakoitzean aplikaziokoa den legeria espezifikoaren arabera; edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak erregulatzen dituen hautetsi karguren bat izatea.
- e) Egungo xedapenek ezarritako zerga edo gizarte segurantzari buruzkoak betebeharrak ez betetzea.
- f) Zerga egoitza erregelamenduz paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurralde batean dagoenean.
- g) Udal honek emandako diru-laguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.
- h) Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrean egonik, ordainketa eginda ez dutenek (diru-laguntza itzultzeko prozeduran zordun gisa)
- i) Diru-laguntzen Lege Orokorraren edo Zergei buruzko Legearen arabera, diru-laguntzak lortzeko aukera ebazpen irmo bidez galduta dutenek.
- j) Entitatearen ordezkariaren baten lege-bateraezintasuna Udaleko langile edo hautetsiekin.
- k) Era berean, ezingo da diru-laguntzarik eman, Ibarra Udalarekin dituzten zorrenatik premiamendu bidezko kobrantza prozeduretan sartuta edo udal entitate honekin zerga obligazioak bete gabe dauzkaten partikularrei edo entitateei, aipatu zorrak ordaindu eta kitatu arte.
- l) Beren jardueraren izaera sozial edo pertsonalaren bitartez, diskriminazioen bat bultzatzen duten erakunde edo pertsonak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

7. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

a) Hizkuntza irizpideak betetzea: Ibarra udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauaren arabera, honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

32.1.1. Ibarra Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek diruz lagundutako beren jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Era berean, ospakizun zehatzetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

32.1.2. Aurreko paragrafoko elkarte, erakunde, pertsona fisiko edo juridikoek euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko diote lehentasuna.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek puntu honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

b) Helburua betetzea, egitasmoa burutzea, jarduera egitea edo diru-laguntza emateko arrazoiaren arabera jokatzea.

c) Udalaren aurrean diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jarduera burutu eta helburua bete dela egiaztatzea.

d) Diru-laguntza ematen duen organoak egingo dituen egiaztapen jarduerak onartzea, baita eskumena duten kontrol-organoez, nazionalak nahiz komunitarioek, egiaztatzeko edo finantzen kontrolerako egin dezaketen beste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.

e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero, diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo gutxienez onartutako diru-laguntzari emandako aplikazioaren egiaztapena egin baino lehen.

f) Eskura izango ditu honakoak: Kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplika dakioken merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita diru-laguntzak arautzen dituen



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da eta.

g) Jasotako diru-laguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.

h) Diru-laguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Ibarra udalaren diru-laguntza jasotzen duten programa, jarduera edo ekintzen finantzazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.

i) Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero jasotako dirua itzuli egin beharko du.

j) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz diru-laguntza ematen duen organoari jakinarazi behar zaio.

k) Edozein motatako zerga obligazio (tokikoak zein gizarte segurantzakoak) eta eskatzailearen nortasuna egiaztatu beharko dira, diru-laguntza emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan, eta erabakitzeko proposamena egin baino lehen, gainerako kasuetan.

Halere, onuradunari urte osoan emandako diru-laguntzen kopuru metatuak ez baditu 1.000 euro gainditzen, aipatu obligazioak betetzen dituela egiaztatzeko, alderdi horien gaineko erantzukizun aitortpena aurkeztu behar du.

Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatu beharko da taldea ordeztzen duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera diru-laguntza arautzen duten gainerako arauekin.

l) Dagokion publizitatearen bidez, diru-laguntzen xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak Ibarra Udalak finantzatzen dituela egoki zabaltea, betiere betebeharrak hori dagokion deialdi, hitzarmen edo ebazpenean eskatzen bada.

m) Jasotako funtsak itzultzea, diru-laguntzen ordenantza orokorrean eskatzen den kasuetan.

j) Genero ikuspegia txertatzea diruz lagundutako proiektu edo jardueretan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

8. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.
2. Beste laguntza batzuen pilaketa kasuetan, diru-laguntzen baturak ezingo du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditi. Horrelakorik gertatuz gero, aipatu kopurua ez gainditzeko, ematekoa den diru-laguntza murriztuko da Oinarri hauen kontura.

9. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Deialdi honek aurreikusten dituen diru-laguntzak jasotzeko eskabideak, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 20 eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko erregistroan (San Bartolome plaza, 2, 20.400 Ibarra).

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira:

1. Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarten eta Entitateen Erregistro Orokorrean inskribatu izanaren ziurtagiria, edo, 5.oinarriko dokumentazioa.
2. Kirol arloko erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen (I.F.K.) fotokopia eta erakundearen ardura duen pertsonaren NAren fotokopia.
3. Diru-laguntza eskaera normalizatua, behar bezala betea, honekin batera doan ereduaren arabera.
4. Elkarte eskatzaileak irekitako kontu korrontearen titularitatea ziurtatzen duen Banketxe edo Aurrezki Kutxaren agiria.
5. Beste ekarpen edo diru-laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.
6. Diru-laguntza eskatzen den jarduera bakoitzeko eranskin bat behar bezala beteta.
7. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharrak bete izana egiaztatzen duen agiria (edo, hala badagokio, 4. Eranskina, dagokion moduan beteta).
8. 2015. urteko jardueretako kirolarien kopurua eta haien izenen zerrenda, bertan adieraziz bakoitza non erroldatua dagoen.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

9. Erakundearen estatutuak.

10. Zinpeko aitortpena, diru-laguntzak jasotzeko inolako debekutan sartuta ez dagoela egiaztatzeko. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 2. eta 3.artikuluetan zehaztutakoak izango dira.

11. Jardueraren memoria

Aurreko paragrafoko 1., 2., 4. eta 9. puntuan zehaztutako agiriak beste deialdiren batean aurkeztu izan badira, eta deialdi horretatik gaur egunera aldatu ez badira, eskatzaileak zinpeko aitortza bat aurkeztu ahal izango du non aitortzen duen aipatu dokumentazioa jada aurkeztua duela eta dokumentazio hori indarrean jarraitzen duela eta ez duela aldaketarik jaso.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe arxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Behin eskaera onartua dagoenean, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

Jarduera baterako diru-laguntza eskatze hutsaren ondorioz, onartu egiten da diru-laguntza hori ematea arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritzia araberako izaera baitu diru-laguntza honek ere.

10. Baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntza norgehiagoketa bidez emango da; horrek esan nahi du, diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duten diru-laguntza kopuru mugatu bat hautatuko dela, kasu bakoitzean zehaztutako irizpideen arabera.

Honako formulazioa erabiliko da diru-laguntzak emateko orduan:

1. $A / B = C$

a. A: balorazio irizpideekin lorturiko puntuazio osoa

b. B: aurreikusirik dagoen aurrekontua (urteko programa 35.300 euro eta jarduera zehaztutako 2.700 euro)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

c. C: puntuen balioa

2. $A \times C =$ emango den diru-laguntzaren kopurua

Diru-laguntzak esleitzerakoan, honako arloak kontuan hartuko dira baldin eta egindako eskarian agertzen badira:

Kirol Elkarte Federatuak

1. Federazioetako kirol-lizentziak.

* Federatuen lizentzia bakoitzeko	1 p.
* Pilota, Herri-kirol, Arraun, Sokatira-lizentzia bakoitzeko	1,5 p.
* Emakume federatuen lizentzia bakoitzeko	1,5 p.

2. Taldearen lehiaketa esparruaren arabera.

* Gipuzkoa mailan	5 p.
* Autonomia erkidego mailan	10 p.
* Estatu mailan	15 p.
* Euskal Herriko zazpi probintzietan	20 p.

3. Bertako kirola

20 p.

4. Kide-kopuruagatik

* 30 kide baino gutxiago	0 p.
* 30 eta 60 kide artean	10 p.
* 60 kide baino gehiago	20 p.

5. Bazkideen kuotengatik

* Hilean 6€ baino gutxiago	0 p.
* Hilean 7-12€ artean	10 p.
* Hilean 12 € baino gehiago	20 p.

6. Aurrekontu mailako irizpideak

* 10.000-30.000 euro arteko aurrekontua	15 p.
* 6.000-10.000 euro arteko aurrekontua	10 p.
* 6.000 euro baino aurrekontu txikiagoa	5 p.

7. Aurreko ekitaldiko balantzean guztira agertzen diren diru-sarreratik entitate pribatu edo enpresetako jatorria duten (babesleak edo laguntzak) diru-sarreraren bolumena kontuan izanda.

* Diru-sarreraren %10 arte	5 p.
* Diru-sarreraren %11 eta %30 artean	10 p.
* Diru-sarreraren %31 eta %50 artean	15 p.
* Diru-sarreraren %50 baina gehiago	20 p.

Ez badute aurreko ekitaldiko balantzea aurkezten ezin zaie atal honetako baremoa aplikatu.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

8. Herritar guztiei zuzendutako aisialdiko kirol-jarduerak antolatzeagatik.		
* Puntualak	5 p.	
* Urtero	10 p.	
9. Kirolariak Ibarraakoak izateagatik.		
* Ibarraakoak %100	20 p.	
* Ibarraakoak %99-%85	15 p.	
* Ibarraakoak %84-%70	10 p.	
* Ibarraakoak %69 baina gutxiago	5 p.	
10. Euskararen hizkuntz erabilera		
* Euskara hutsean	10 p.	
* Euskara eta beste hizkuntzak tartekatzea	5 p.	
* Beste hizkuntzak	0 p.	
11. Ibarraan jokatzeko diren jardunaldiengatik		
* 0-1 jardunaldi	0 p.	
* 1-5 jardunaldi	10p.	
* 5-20 jardunaldi	20 p.	
12. Lizentzia indarrean duten kirol titulazioagatik		
* Oinarrizko entrenatzaile/monitore/epaile	1 p.	
* Erdi mailako entrenatzaile/ magisteritza espezializatu/kirol eta jarduera fisikoko teknikoa	3 p.	
* Goi mailako entrenatzailea /jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan teknikoa	5 p.	
* Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan lizentziatua, maisutasunez	10 p.	
Puntuazio bakoitzari %50 gehituko zaio entrenatzaileak emakumeak badira.		
13. Herriko eragile edo taldeekin hitzarmenak izatea		30 p.
14. Haur, nerabe eta gazteekin oinarrizko kirola lantzea		
* 0-10 kide	10 p.	
* 11-20 kide	20 p.	
* 21 kide baino gehiago	30 p.	
Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko izendatutako kreditua 43.700,00€koa da. Kreditu hau 430.341.00.00 2016 aurrekontu atalari, dagokio.		
Ekitaldi Bereziak		
1. Gertaeraren jarraikortasuna		
* 50 urtetik gora.	15 p.	
* 15-49 urte artean.	10 p.	
* 6-14 urte artean.	5 p.	
* 5 urtetik behera.	0 p.	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. Gertaeraren egun kopurua	
* 3 egunetik gora.	15 p.
* 2/3 egun	10 p.
* Egun 1	5 p.
3. Parte-hartzaile kopurua	
* 500-2.500 parte-hartzaile artean	20 p.
* 250-500 parte-hartzaile artean	15 p.
* 100-250 parte-hartzaile artean	10 p.
* 50-100 parte-hartzaile artean	5 p.
* 50tik behera	1 p.
4. Genero berdintasuna sustatzeko bereziki antolatutako jarduerak	10 p.
5. Bertako kirola	20 p.
6. Aurrekontu mailako irizpideak	
* 10.000-30.000 euro arteko aurrekontua	15 p.
* 6.000-10.000 euro arteko aurrekontua	10 p.
* 6.000 euro baino aurrekontu txikiagoa	5 p.
7. Aurreko ekitaldiko balantzean guztira agertzen diren diru-sarreratik entitate pribatu edo enpresetako jatorria duten (babesleak edo laguntzak) diru-sarreraren bolumena kontuan izanda.	
* Diru-sarreraren %10 arte	5 p.
* Diru-sarreraren %11 eta %30 artean	15 p.
* Diru-sarreraren %31 eta %50 artean	30 p.
* Diru-sarreraren %50 baina gehiago	50 p.
Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko izendatutako kreditua 4.300,00 €koa da. Kreditu hau 430.341.00.00 2016 aurrekontu atalari, dagokio.	

Diruz laguntzekoak izan daitezkeen beste proposamen batzuen programarekin bat ez datozen aldetik, izaera soileko diren proiektuak edo elkarteak aurkezten direnean, irizpide nagusia izango da diru-laguntza ematea, ziurtatuz programa edo proiektua irizpide hauen arabera gauzatuko dela: Aurrekontuen bideragarritasuna, jarduerarako aurreikusitako defizita, eta hala badagokio, aurreko urteetan jarduera bererako emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Bide egokiena dela baloratzen den kasuetan, Udalak hitzarmen modalitatea ezarri ahal izango du interesatuekin. Hitzarmen horrek, entitatearen ordain gisa jasoko ditu urteko programak sustatzeko eta zabaltzeko eremuetako ekintza zehatzak garatzea eta gauzatzea.

11. Prozeduraren instrukzioa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako organo eskuduna Kirol Batzordea izango da.

Organo horrek dagokion organo eskudunari aurkeztuko dio proposamena. Erabakitzeko proposamen horrek honako hauek jaso behar ditu:

- Eskaeren ebaluazioa.
- Diru-laguntza jasotzeko proposatzen den eskatzaileen zerrenda
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Tokiko Gobernu Batzarra izango da prozedura hori erabakitzeko eskumena izango duen organoa.

Organo instruktoreak eska diezaieke interesdunei behar adina argibide eta informazio nahiz agiri prozedura izapidetzeko eta, oro har, ebazpena eman behar deneko datuak egiaztatzeko beharrezko direnak.

Diru-laguntza norgehiagoka bidez emango da eta kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, laguntza kopuru bat erabakiko da, diruz lagundu diren jarduketan kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duena.

12. Ebazpena

Prozedura hori erabakitzeko eskumena izango duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da. Epea hiru hilabetekoa izango da, deialdiaren iragarkiaren egunetik kontatzen hasita, baldin eta organoak berak data atzeratzen ez badu aurrekontu bitartekoak direla eta.

Gehieneko epe hori igarota, eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ezetsizat joko du bere diru-laguntza eskaera, azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 lege orokorrak 25.5 art.an ezarritakoari jarraiki. Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legeak 43 art.an aurreikusitakoaren arabera, eskaerak ezetsi egingo dira eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabetera ebazpenik eman ez bada.

Ebazpena oinarri hauetan jasotako baldintza eta irizpideen arabera arrazoituko da, eta prozeduran egiaztatu beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak.

Diru-laguntzaren ebazpenak alderdi hauek jasoko ditu:

* Onuradunaren identifikazio datuak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- * Diru-laguntzaren xedea.
- * Emandako gehienezko zenbatekoa.
- * Diruz lagundutako jarduera burutzeko eta zuritzeko epea.

13. Diru-laguntzaren zuriketa.

Diru-laguntza emanda, onuradunak honakoa egiaztatuko du:

- a) Emandako zenbatekoa helburua betetzeko eta diruz lagundutako jarduera burutzeko bideratu dela.
- b) Lorturiko emaitzak.

Egiaztatzea behar-beharrezkoa da betebeharrak aitortzeko eta kitapenerako.

Pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatuei emandako diru-laguntzak zuritzeko honako agiriok aurkeztuko dira:

1. Egindako jardueraren edo programaren azalpen-memoria, zeinek gutxienez, atal hauek izango ditu:
 - a. Programaren edo proiektuaren izena.
 - b. Diru-laguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.
 - c. Gauzatutako jarduerak, proposatutako helburuak eta lortutako emaitzak deskribatzea.
 - d. Proiektua edo jardueraren garapenean egindako aldaketak.
 - e. Finantza baliabideen zerrenda: Diru-laguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita diru funts propioekin edo beste diru-laguntza batekin finantzatutako beste jarduera batzuenak ere.
 - f. Objektibagarriak diren heinean, pertsona onuradun-eskatzaileen datuak sexuaren arabera bereizita, baldin eta horrelaxe adierazten bada dagozkien oinarrietan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

g. Ondorioak.

2. Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:

a. Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.

b. Izandako gastuak eta lortutako diru-sarreraren zerrenda ordenatua eta sekuentzialki zenbatutakoa, kontzeptuka antolatuta eta emaitzak guztira islatzen dituen. Gastuen zerrendak hau jasoko du:

- i. Hartzekodunaren identifikazioa.
- ii. Dokumentuaren identifikazioa.
- iii. Zenbatekoa.
- iv. Igorpen data.
- v. Ordainketa data.
- vi. Merkataritza zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta hala badagokio, ordainketaren dokumentazio akreditatiboa. Dokumentu horien fotokopiak aterako dira eta konpultsatu egingo dira; kudeaketa zerbitzuak berretsiko ditu eta jatorrizko dokumentuak interesatuari itzuliko zaizkie. Jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak erakunde onuraduneari geratuko dira gutxienez lau urtez. Erosketa tiketak edo ordainagiriak onartuko dira, 20,00 € baino txikiagoak badira eta guztira jasotako diru-laguntzaren %10 gainditzen ez bada.

c. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren eta diru-laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

d. Fakturak ematen dituen erakunde bat BEZetik salbuetsita badago, salbuespen hori dagoela berresten duen erakunde eskudunak emandako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

e. Langileei dagozkien gastuak soldata-gastu gisa justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Lan kontratuen kopiak, hartzailak sinatutako dagozkien nomina ordainduak, edo hala badagokio, bankuko abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizatu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

izanaren ziurtagiriak.

- f. Hartzekodunen ordainketa ziurtagiria banku zordunketa bidez egin beharko da, modu zuzenean sinatutako "jaso agiria", edo aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren beste dokumentu-ziurtagiri bat.
3. Programa edo jardueraren propagandarako egin diren kartelen kopiak eta hizkuntzaren erabilera justifikatzen duen dokumenturen bat.
4. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalaren nahiz Foru Ogasunaren zergak kitatuta dituela egiaztatzen duen agiria.

Udalak, dagozkion bide guztiak erabiliz, emandako diru-laguntzen erabilera aztertu ahal izango du.

14. Diru-laguntza justifikatzeko epea.

14.1.- Urteko programazioa: 2017ko otsailaren 17a.

14.2.- Ekintza puntualak: Ekintza gauzatu eta 45 egun naturaleko epean justifikatuko da.

2014ko lehiaketaren ondorioz jaso beharrekoa ez da aurreko urtekoa zuritu arte jasoko.

15. Diru-laguntzaren ordainketa.

Ordainketa egingo da onuradunak egiaztatzen duenean diru-laguntza eman zitzaioneko helburua bete dela eta jarduera burutu izana eta gastua egin izana justifikatzen duenean.

Ez da ordainketarik egingo onuraduna zerga betebeharretan eta gizarte segurantzako betebeharretan egunean ez bada, edo zorduna bada eta ebazpen bidez itzulketa agindu bada.

Ordainketa zatikatuen bidez ordainduko da, diruz lagundutako jarduerak burutzen diren neurrian eta aurkeztutako justifikazioaren arabera zenbatekoa emango da oinarri hauei jarraiki.

15.1.- Urteko programazioa:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntzak bi epetan ordainduko dira: Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari diru-laguntzaren %60 ordainduko zaio. Gainerako %40 jarduera edo egitasmoaren justifikazioari onespena ematen zaionean ordainduko zaio.

15.2.- Ekintza puntualak.

- a) Hiru mila eurotik beherako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Diru-laguntzaren %100 ekintza gauzatu baino astebete lehenago ordainduko zaio.
- b) Hiru mila eurotik gorako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Ekintza gauzatu baino astebete lehenago diru-laguntzaren %60 ordainduko zaio. Gainerako %40 ekintzaren justifikazioari onespena ematen zaionean ordainduko zaio.

16. Ordainketa aurrerakina

Diru-laguntza ematen duen organoak, ordainketa aurrerakinak erabaki ditzake onuradunei emandako diru-laguntzetan, diru-laguntza horien jarduketei loturiko finantzazio beharretarako.

17. Publizitatea.

Diruz lagundutako jardueri buruzko publizitatean, beti Ibarra Udalaren lankidetzaren adierazi beharko da.

Propaganda, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz ere egin beharko da.

Diru-laguntzen onuradunek konpromisoa hartuko dute emakumeentzat iraingarria edo baztertzaila izan daitekeen propagandarik ez erabiltzeko.

18. Kontrol eta jarraipena.

Diru-laguntzen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Diru-laguntzen finantza kontrola Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzaren eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

19. Emandako diru-laguntzen aldatetak

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gainditzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du eta jasotako dirua itzultzera behartuko da.

20. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren itzulketa araubideari.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 46. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

21. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 50. artikuluan ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena

22. Interpretazioa.

Oinarri hauetan hutsuneak egonez gero, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren eta azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren araututakoa kontuan izango da.

23. Araudi osagarria.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Oinarri hauetan aintzat hartu ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartuta legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

HIRUGARRENA:

3.- 2016KO MAIATZAREN 13AN BURUTURIKO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAREN ONARPENA

3.1 2016 URTERAKO GIZARTE ARLOAN EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK

2016. urterako Gizarte Zerbitzu arlotik emango diren diru-laguntzen oinarriak aztertzen dira.

2016ko maiatzaren 13ko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea 2016. urterako Gizarte Zerbitzu arloan emango diren diru-laguntzen oinarriak.

BIGARRENGOA: Ibarra pertsona eta elkarteei 2016. urtean gizarte zerbitzuko arloan garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko deialdia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

II. ERANSKINA

IBARRAKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK 2016.

Hitzaurrea

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak (TAOL), III. Kapituluako 25.k eta ondorengo artikuluetan, udalen eskumenen artean esleitzen ditu Gizarte Zerbitzuetan eskumena eta bergizarteratzearen sustapena egin.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak xedatzen dute, tokiko udalen diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan onetsi behar direla, diru-laguntzen ordenantza nagusi baten bidez edo diru-laguntzen hainbat modalitatetarako ordenantza espezifiko baten bidez.

2013ko ekainaren 7ko GAOko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra arautuko ditu diru-laguntza hauek emateko baldintza eta prozedura.

2016ko martxoaren 29ko GAOko 57. zenbakian argitaraturik dagoen 2016-2019 urte bitarterako Ibarra Udalaren diru-laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoari jarraiki egiten da honako deialdia.

Diru-laguntzak iragarki, norgehiagoka, objektibotasun eta berdintasun printzipioen arabera emango dira, Herri Administrazioa haiei atxikita baitago, besteak beste, sustapen-jarduerak gauzatzekoan.

IBARRAKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK 2016. URTEAN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK

1. Xedea

Oinarri hauen helburua da 2016 urtean Gizarte Ekintzako esparruan jarduerak, proiektuak edo programak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko pertsona edo elkarteei diru-laguntzen emakida arautzea.

Xede horretarako, artikuluko hauen bidez Gizarte Zerbitzuen sailetik eskaintzen diren laguntza guztiak arautuko dira; eta eranskinen bidez, jarduera-ildo bakoitzaren alderdi bereziak.

2. Diru-laguntzak emateko prozedura.

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagokako erregimenean izango da eta printzipio hauen arabera egingo da: Publizitate, objektibotasun, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik eza. Eskumeneko organoak onartutako deialdi publikoaren bidez egingo da.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza deialdi honetarako kopurua 20.000€ da, honako partida honen kargura: 1.0000.490.230.20.01.2016 i eranskinerako, eta 3.000€ partida honen kargura: 0000.430.231.00.00 2016 ii eranskinerako

Diru-laguntza emateko orduan zehaztuko da bakoitzari emango zaion zenbatekoa edota adjudikazio prozeduran lortutako puntuazioa.

Zenbateko hori benetakotzat joko da, eta ez dio erreferentziarik egingo kostu osoaren zatikatze edo portzentajeari.

Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa, diru-laguntzak estaltzen ez duena, onuradunaren beraren funtsen bitartez estaliko da edo beste diru-laguntza edo baliabideen bitartez, beti ere, azken hori bateragarria baldin bada oinarri hauetan zehaztutakoarekin. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango inolaz ere, bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 baino handiagoa.

Salbuespen modura, aurrekontua izateagatik edo beste arrazoi bategatik, organo emaileak diru-laguntzen zenbateko osoaren hainbanaketa egin dezake onuradunen artean, aurretik froga-txostena eginda.

4. Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programak

Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat joko dira Ibarako udalerrian garatuko diren Gizarte Ekintza esparruan dauden jarduera, proiektu eta programak :

- a) Lankidetzeta Proiektuak garapen bidean diren herrialdeetan: I eranskinean arautua
- b) Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten pertsona edo elkarteentzako laguntzak: III eranskinean arautua

Diruz lagundutako gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epeen barruan egiten direnak.

Ibarako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua aurrera eramateko lege- edo finantza-aholkularitza gastuak, notario-gastuak eta peritu-gastuak diruz lagundu daitezke baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta berorren prestakuntza edo gauzatze egokirako ezinbestekoak badira.

Diru-laguntzaren onuradun den elkarteak edo pertsonak jardueraren antolakuntzak dakartzan ardurak beregain hartuko ditu, aipatu jarduera bermatzen duten dagozkion aseguru-polizak itunduz.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta diru-laguntzaren onuradun den pertsona edo elkartearen artean inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.

5. Onuradunak

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntza 4. artikuluan jasotzen diren jarduera-programaren bat garatu nahi eta oinarri hauetan zein diru-laguntza gaietan aplikagarria den araudian aurreikusitako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten Ibarran egoitza edo ordezkaritza iraunkorra duten diru irabazi asmorik gabeko izaera duten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuek.

Diru-laguntza jaso ahal izango dute legalki eratuta eta Eusko Jaurlaritzako elkarte-erregistroan izena eman eta Ibarran kokatutako eta deialdi honetan ezarritako arloan jarduerak egiten dituzten elkarteak. Ibarako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 8. artikuluan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Izaera juridiko gabeko pertsona fisikoak edo juridikoak, publiko zein pribatu, osatutako elkarteek kasuan, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Taldearen ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko da, nahikoa ahalarekin onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko, aplikagarri izango baita 38/2003 legearen 11. artikulua.
- b) Zinpeko aitortpena non jasotzen den elkarte desegiteko ezintasuna diru-laguntzaren preskripzio epea amaitu arte, 38/2003 Legearen 39 eta 65. artikuluetan jasotako diru-laguntzaren itzulketa aitortu edo likidatzeko.

6. Baztertuak

Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira ondorengoak:

- a) Epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izan direnak.
- b) Lehiaketa eskaera egin dutenak, edozein prozeduretan kaudimengabeak jo direnak, lehiaketan egonik esku-hartze judizialaren mende daudenak edo lehiaketa legearen arabera ezgaituak izan direnak, beti ere sententzian jasotako inhabilitazio epea amaitu ez bada.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- c) Administrazioarekin eginiko edozein kontratu bertan behera uzteko errudun aitortuak izan direnak.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak sartuta daudenean kontratatzeko bateraezintasun kasuren batean, bakoitzean aplikagarria den legeria espezifikoaren arabera; edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak erregulatzen dituen hautapenezko karguren bat izatea.
- e) Zerga obligazioak edo gizarte segurantzari buruzkoak ez betetzea, diru-laguntza emateko ebazpen proposamena ematerakoan.
- f) Beren zerga egoitza dagoenean erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
- g) Udal honek edo bere erakunde autonomoek emandako diru-laguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.
- h) Diru-laguntzak itzultzeko betebeharretan egonik, ordainketak ez egitea (Diru-laguntza itzultzeko prozeduran zordun gisa).
- i) Ebazpen irmo bitartez diru-laguntzak jasotzeko zigortua izatea diru-laguntzen Lege Orokorra edo Zergei buruzko legerari jarraiki.
- j) Entitatearen ordezkariaren baten bateraezintasun legala, Udaleko pertsonal edo hautatuekin.
- k) Era berean, ezingo da diru-laguntzarik eman, Ibarra Udalarekin dituzten zorrenatik premiamendu bidezko kobrantza prozeduretan sartuta edo udal entitate honekin zerga obligazioak bete gabe dauzkaten partikularrei edo entitateei, aipatu zorrak ordaindu eta kitatu arte.
- l) Beren jardueraren bitartez, diskriminazioaren bat bultzatzen duten erakunde edo pertsonak .

7. Onuradunen eginbeharrak.

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

- a) Diru-laguntzak emateko arrazoi den xedea betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzea edo jokabidea hartzea.
- b) Hizkuntza irizpideak betetzea: Ibarra udalean eta udalerrian euskararen erabilera



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

normalizatzeko irizpideen 32.1 artikulua araberan, honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

1. Ibarako Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek diruz lagundutako beren jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Era berean, ospakizun zehatzetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz ere eman beharko dituzte.

Aurreko paragrafoko elkarte, erakunde, pertsona fisiko edo juridikoek euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko diote lehentasuna.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek puntu honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

- c) Diruz lagundutako proiektu edo jardueran genero ikuspegia txertatzea.
- d) Udalaren aurrean diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jarduera burutu eta helburua bete dela egiaztatzea.
- e) Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen jarduerak onartzea, baita eskumena duten kontroleko organoek, nazionalak nahiz komunitarioek, egiaztatzeko edo finantzen kontrolerako egin dezaketen beste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.
- f) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero, diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo gutxienez onartutako diru-laguntzari emandako aplikazioaren egiaztapena egin baino lehen.
- g) Eskura izango ditu: Kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplika dakioken merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita diru-laguntzak arautzen dituen oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da eta.
- h) Jasotako diru-laguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- i) Diru-laguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Ibarra udalaren diru-laguntza jasotzen duen programa, jarduera edo ekintzen finantzazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.
- j) Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero, jasotako dirua itzuli egin beharko du.
- k) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz, diru-laguntza ematen duen organoari jakinarazi behar zaio.
- l) Diru-laguntza emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan edo gainerakoetan, erabakitzeko proposamena egin baino lehen, egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, eta gainerakoekin, eta eskatzailearen nortasuna egiaztatzea.

Halere, onuradunari urte osoan emandako diru-laguntzen kopuru metatuak ez baditu 1.000 euro gainditzen, aipatu obligazioak betetzen dituela egiaztatzeko, alderdi horien gaineko erantzukizun aitortza aurkeztu behar du.

Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatu beharko da taldea ordeztzen duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera diru-laguntza arautzen duten gainerako arauarekin.

- m) Diru-laguntzen xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak Ibarra Udala finantzatzen dituela egoki zabaltzea bidezko publizitatea emanez, baldin eta betebeharrak hori dagokion deialdi, hitzarmen edo ebazpenean exijitu bada.
- n) Jasotako funtsak itzultzea, Ibarra udalaren diru-laguntzen ordenantza orokorrean xedatutako kasuetan.

8. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuak emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diru-laguntza jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

9. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Deialdi honek aurreikusten dituen diru-laguntzak jasotzeko eskabideak, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta 30 eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko Erregistro Orokorrean: San Bartolome Plaza 2 zenbakia, 20400 Ibarra (Gipuzkoa). Goizeko 8:00-14:00 etara

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin aurkeztu beharko dira:

- a) Diru-laguntzarako eskari-orri normalizatua behar bezala beteta.
- b) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.
- c) Elkartearen estatutuen fotokopia. Entitate eskatzailearen estatutuak, lehendik jada Udalari entregatu bazaizkio izan ezik, baina estatutuak zein egun, organo edo bulegotan aurkeztu ziren adierazi beharko da, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada
- d) Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen (I.F.K.) fotokopia eta erakundearen ardura duen pertsonaren NANaren fotokopia.
- e) Eskaera besteren baten izenean eginez gero, eskatzaileak duen ordezkartzaren egiaztagiria, bai elkarte edo taldeak hartutako akordio bidez, bai ahalduntzearen bidez sozietateen kasuan.
- f) Eskaria egiten duen Erakundeak irekitako Kontu Korrontearen titularitatea ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxa horrek emaniko ziurtagiria.
- g) Instituzio, erakunde eta abarrei eskatutako diru-laguntzen edo, hala bada, jasota dituzten haien aitortpena.
- h) Diru-laguntza xede izango duen programaren edo ekintzaren txostena zehaztuta.
- i) Programaren edo ekintzaren diru-sarrera eta gastuen aurrekontua.
- j) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria (edo hala badagokio, eranskinean dagoen agiria, dagokion moduan beteta).
- k) Zinpeko aitortpena, diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batetan sartuta ez dagoela



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

adierazteko. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 2. eta 3. artikuluetan zehaztutakoak izango dira.

- l) Zinpeko aitortpena, adierazten duena, batetik, sexuaren ziozko diskriminaziorik ez dela egiten kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere, eta bestetik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez duela sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik
- m) Eskatzailearen emaila eta kontaktuzko telefonoa (komunikazioak email bidez egingo dira)

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki **(dokumentazio eskaera email bidez egingo da)**.

Eskaera onartua izanda ere, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

Jarduera baterako diru-laguntza eskatze hutsaren ondorioz, onartu egin beharko da diru-laguntza horren emakida arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritziaren araberako izaera baitu diru-laguntza honek ere.

Eskabideak eta informazioa non eskuratu: Ibarra udaltxean (San Bartolome plaza, 2), www.ibarra.eus edo 943-670415 telefonoan.

10. Baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntza mota bakoitza arautzen duen eranskinean zehaztuko dira proiektu eta eskaerak baloratzeko erabiliko diren irizpideak

11. Prozeduraren instrukzioa.

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako organo eskuduna Gizarte Zerbitzuetako Batzordea izango da.

Organo horrek Tokiko Gobernu Batzordeari aurkeztuko dio proposamena. Erabakitzeko proposamen horrek honako hauek jaso behar ditu:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Eskaeren ebaluazioa.
- Eskatzaile-zerrenda, diru-laguntza jasotzeko proposatuko direnena.
- Diru-laguntzaren zenbateko zehatza.

Prozedura hori erabakitzeke eskumena izango duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

Organo instruktoreak eska diezaieke interesdunei behar adina argibide eta informazio nahiz agiri prozedura izapidetzeko eta, oro har, ebazpena eman behar deneko datuak egiaztatzeke beharrezko direnak.

Diru-laguntza norgehiagoka bidez emango da eta kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, Laguntza kopuru bat aukeratu da, diruz lagundu diren jarduketan kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duena.

12. Ebazpena

Prozedura hori erabakitzeke eskumena izango duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da. Epea hiru hilabetekoa izango da, deialdiaren iragarkiaren egunetik kontatzen hasita, baldin eta organoak berak data atzeratzen ez bada aurrekontu disponibilitatea dela eta.

Gehienezko epe hori igarota, eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ezetsizat joko du bere diru-laguntza eskaera, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legeak 43 art.an aurreikusitakoaren arabera, eskaerak ezetsi egingo dira eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabetera ebazpenik eman ez bada.

Ebazpena oinarri hauetan jasotako baldintza eta irizpideen arabera arrazoituko da, eta prozeduran egiaztatu beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak.

Diru-laguntzaren ebazpenak alderdi hauek jasoko ditu:

- * Onuradunaren identifikazio datuak.
- * Diru-laguntzaren xedea.
- * Emandako gehienezko zenbatekoa.
- * Diruz lagunduko jarduera burutzeko eta zuritzeko epea.

Ebazpenak zehaztuko du ordainketa bakarreko sistema (3.000,00 € baino gutxiagoko diru-laguntzak) edo zatikatuta (%60-%40) eskatutako diru-laguntzaren izaeraren arabera. Eman behar den diru-laguntza zehazteko, kontuan izango da beste irizpide batzuen artean, aurkeztutako eskaerak eta diru-laguntza jaso dezaketean jarduerak Udalak horretarako bideraturiko aurrekontuan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

baitan.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da, prozeduran interesatuek agertutako egintzak eta argudiatutako alegazio eta probak bakarrik agertzen badira edo kontuan hartzen badira izan ezik.

Eskariak ebazteko gehienez hiru hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako esan-bidezko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi direla ulertuko da.

Interesatuei erabakiaren berri emango zaie, azaroaren 26ko 30/1992 legearen 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Udalak emandako diru-laguntzen argitalpena egingo du 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

13. Diru-laguntzaren zuriketa.

Diru-laguntza emanda, onuradunak honakoa egiaztatuko du:

- a) Emandako zenbatekoa helburua betetzeko bideratu dela eta diruz lagundutako jarduera burutzeko.
- b) Lorturiko emaitzak.

Egiaztatzea behar-beharrezkoa da betebeharra aitortzeko eta likidatzeko.

Pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatuei emandako diru-laguntzak zuritzeko honako agiriok aurkeztuko dira:

1. Egindako jardueraren edo programaren azalpen-memoria, zeinek gutxienez, atal hauek izango ditu:
 - a. Programaren edo proiektuaren izena.
 - b. Diru-laguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.
 - c. Gauzatutako jarduerak, proposatutako helburuak eta lortutako emaitzak deskribatzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- d. Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.
- e. Finantza baliabideen zerrenda: Diru-laguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita beste dirulaguntza batekin edo onuradunekin finantzatutako beste jarduera batzuen ere.
- f. Objektibagarriak diren heinean, pertsona onuradun-eskatzailen datuak sexuaren arabera bereizita, baldin eta horrelaxe adierazten bada dagozkien oinarrietan.
- g. Ondorioak.

2. Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:

a) Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.

b. Izandako gastuak eta lortutako diru-sarreraren zerrenda ordenatua eta sekuentzialki zenbatutakoa, kontzeptuka antolatuta eta emaitzak guztira islatzen dituen. Gastuen zerrendak hau jasoko du:

- i. Hartzekodunaren identifikazioa.
- ii. Dokumentuaren identifikazioa.
- iii. Zenbatekoa.
- iv. Igorpen data.
- v. Ordainketa data.
- vi. Merkataritza zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta hala badagokio, ordainketaren akreditazio-dokumentazio. Dokumentu horien fotokopiak aterako dira eta konpultsatu egingo dira; kudeaketa zerbitzuak berretsiko ditu eta jatorrizko dokumentuak interesatuari itzuliko zaizkie. Jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak erakunde onuraduneari geratuko dira gutxienez lau urtez. Erosketa tiketak edo ordainagiriak onartuko dira, 20,00 € baino txikiagoak badira eta guztira jasotako diru-laguntzaren %10 gainditzen ez bada.

- h. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren eta diru-laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.
- i. Fakturak ematen dituen erakunde bat BEZetik salbuetsita badago, salbuespen hori



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dagoela berresten duen erakunde eskudunak emandako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

- j. Langileei dagozkien gastuak soldata-gastu gisa justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Lan kontratuen kopiak, hartzaileak sinatutako dagozkien nomina ordainduak, edo hala badagokio, bankuko abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizatu izanaren ziurtagiriak.
- k. Hartzekodunen ordainketa ziurtagiria banku zordunketa bidez egin beharko da, modu zuzenean sinatutako “jaso agiria”, edo aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren beste dokumentu-ziurtagiri bat.

3. Programa edo jardueraren propagandarako egin diren kartelen kopiak.

3. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalaren nahiz Foru Ogasunaren zergak kibatuta dituela egiaztatzen duen agiria.

Udalak, dagozkion bide guztiak erabiliz, emandako diru-laguntzen erabilera aztertu ahal izango du.

14. Diru-laguntza justifikatzeko epea.

14.1.- Urteko programazioa: 2017ko otsailaren 24a.

14.2.- Ekintza puntualak: Ekintza gauzatu eta 45 egun naturaleko epean justifikatuko da.

2017ko lehiaketaren ondorioz jaso beharrekoa ez da aurreko urtekoa zuritu arte jasoko.

15. Diru-laguntzaren ordainketa.

Oinarri hauen bidez diruz lagundu beharreko ekintzen berezitasunak kontutan hartuta, zenbatekoaren %60 ordaindu ahal izango da diru-laguntza emango dela erabakitzerakoan, eta gainontzeko %40a diruz lagundutako jarduera amaitu eta onuradunak egiaztatzen duenean diru-laguntza eman zitzaioneko helburua bete dela eta jarduera burutu izana eta gastua egin izana justifikatzen duenean.

Ez da ordainketarik egingo onuraduna zerga betebeharretan eta gizarte segurantzako betebeharretan egunean ez bada, edo zorduna bada eta ebazpen bidez itzulketa agindu bada.

Ordainketa zatikatuen bidez ordainduko da, diruz lagundutako jarduerak burutzen diren neurrian



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

eta aurkeztutako justifikazioaren arabera zenbatekoa emango da oinarri hauei jarraiki.

16. Ordainketa aurrerakina.

Diru laguntza ematen duen organoak, ordainketa aurrerakinak erabaki ditzake onuradunei emandako diru- laguntzetan, diru-laguntza horien jarduketei loturiko finantzazio beharretarako.

17. Emandako diru-laguntzen aldaketak.

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gainditzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du eta jasotako dirua itzultzera behartuko da.

18. Publizitatea.

Diruz lagundutako jardueri buruzko publizitatean, beti Ibarra Udalaren lankidetzaren adierazi beharko da.

Propaganda, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz ere egin beharko da.

Diru-laguntzen onuradunek konpromisoa hartuko dute emakumeentzat iraingarria edo baztertzaila izan daitekeen propagandarik ez erabiltzeko.

19. Kontrol eta jarraipena.

Diru-laguntzen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Diru-laguntzen finantza kontrola Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Oinarri hauetan arautzen den diru-laguntza sistema Ibarra Udaleko kontuhartzailatza departamentuak aurrera eraman dezakeen kontrol finantzarioaren mende egongo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzaren eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

20. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren itzulketa araubideari.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 46. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

21. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 50. artikuluan ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena.

22. Interpretazioa.

Oinarri hauetan hutsuneak egonez gero, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren eta azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren araututakoa kontuan izango da.

23. Araudi osagarria.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartuta legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

24. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen

ERANSKINA 1

LANKIDETZA PROIEKTUAK GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

1. Xedea

Oinarri honen helburua garapen bidean diren herrialdeetako lankidetza proiektuak diruz laguntzeko emakida arautzea:

Garapenerako lankidetza proiektuek printzipio gidari hauek bete beharko dituzte:

- Helburuko populazioen ekonomia- eta gizarte-garapeneko premiei erantzutea eta gizarte-sektore kaltetuenetan eragina izatea.
- Ez izatea noizbehinkako ekintza isolatuak, eta gizartea eraldatzeko estrategia orokorrago batean kokatuta egotea.
- Gizarte-garapeneko programen barruan burutzea, komunitate onuraduneko kideen partaidetza eta prestakuntza sustatzea, eta tokiko eta eskualdeko erakundeen garapena bultzatzea.
- Kultura ez inposatzea eta komunitate hartzailearen idiosinkrasia eta ingurumena errespetatzea.
- Hiritar guztiek oro har horien onurak jaso ahal izatea, emakume eta haurren egoera berezia kontuan izanda, eta berorien aukeren garapena sustatuta.
- Proiektuaren helburu diren kolektiboan eta IBARRAko udalerriaren arteko elkartasun-erlazioak sustatzea eta finkatzea.

2. Eskaerak. (Oinarri hauetako 9. Puntuan arauturikoa jarraituz aurkeztu beharko dira)

Nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko edozein erakunde edo instituziok eskatu ahal izango ditu diru-laguntzak; horien jarduerak oinarri hauekin bat etorriko dira eta egoitza nagusia edo legalki osatutako ordezkari (egoitza soziala Eusko Jaurlaritzako elkartearen erroldan inskribatuta) IBARRAko udalerrian izango dute.

Diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor Arautzailean agertzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte aipatutako erakundeek:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Beren helburuak betetzeko nahikoa egitura eta jarduteko behar den ahalmena izatea, eta uneko proiektuan behar bezala ziurtatzea.
- Lankidetzaren proiektuen kasuan: Tokian tokiko kontrapartea edukitzea.

3. Balorazio-irizpideak.

Irizpide eta balorazio-muga hauek aplikatuko dira proiektua baloratzeko orduan (gehienez 95 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

3.1 Inplikaturako alderdien gaitasunari buruzkoak (gehienez 21 puntu).

- Eskaera egiten duen erakundeak garapenerako lankidetzaren proiektuetan duen eskarmentua (gehienez 7 puntu).
- Tokian tokiko kontrapartearen eskarmentua eta gaitasuna (gehienez 7 puntu).
- Elkartearen parte-hartzea herriko sentsibilizazio ekintzetan eta IBARRAko elkartasun-sarean (gehienez 7 puntu).

3.2 Proiektuaren edukari buruzkoak (gehienez 25 puntu).

- Garatuko den proiektuari buruzko informazioa eta haren kokatze geografikoa, politikoa eta soziala (gehienez 4 puntu).
- Diruz lagundutako jardueraren burutu ondoren, proiektuaren iraunkortasuna gerora begira (gehienez 5 puntu).
- Adierazleen eta egiaztapen iturrien zehaztapena (gehienez 4 puntu).
- Proposatutako proiektuaren ibilbidea eta errotzea. Aurreko proiektu bat jarraitzea (gehienez 6 puntu).
- Proiektuaren xede den biztanleriaren parte-hartze aktiboa (gehienez 6 puntu).

3.3 Proiektua garatzearen ondorioei buruzkoak (gehienez 35 puntu).

- Bereziki behartsuak diren sektoreen bizi baldintzak hobetzea (gehienez 6 puntu).
- Genero ikuspegia kontuan hartzea (gehienez 11 puntu).
- IBARRAen bizi diren etorkinak beraien jatorrizko herrialdeetako garapeneraren agente bihurtzea (gehienez 6 puntu).
- IBARRAen bizi diren etorkinen inguru geografiko nagusienetan proiektuak garatzea (gehienez 4 puntu).
- Proiektuaren xede den biztanleriaren balio kulturalak errespetatzea eta bultzatzea (gehienez 4 puntu).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Ekintza egingo den eremuko natura aberastasuna eta balio ekologikoak errespetatzea eta babestea, kalte ekologikorik sortu gabe (gehienez 4 puntu).

3.4 Bideragarritasun ekonomikoa (gehienez 14 puntu).

- Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (gastuen aurrekontu xehatua), jardueren, baliabideen eta kostuen arteko erlazioa (gehienez 14 puntu).

* **Atal honetan 7 puntu lortzen ez dituzten proiektuak baztertuta geratuko dira.**

2. ERANSKINA

GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN DIHARDUTEN PERTSONA EDO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK

1. Xedea .

Oinarri hauen helburua da gizarte zerbitzuekin lotutako jarduerak egiten dituzten pertsona edo elkarteentzako diru-laguntzen emakida arautzea

Oinarri hauetan araututako laguntzak elkarten funtzionamendurako, zein elkarte-jarduerako kolektiboek zuzendutako berariazko programa edota zerbitzuak garatzeko emango dira. Halaber, Udaleko Gizarte Zerbitzuek beren jarduerak burutzean antzemandako premia zehatzak ebatz ditza keten jarduera eremuetara zuzendutako programa edo zerbitzuen garapena proposatzen duten jarduera edo proiektuetarako ere eskaini ahal izango dira, eta kolektibo zehatz batzuen partehartzea eta ongizatea sustatzen dituzten jardueretarako ere bai.

2. Eskaerak.

Diru-laguntza hau eskatu ahalko dute irabazi asmorik gabeko elkarte edo pertsona fisikoek. Baldintzak hauek dira: beren jarduerak oinarri hauen helburuarekin bat etortzea, Ibarraoak izatea, Ibarra izatea helbide soziala edo ordezkaritza iraunkorra, Ibarrao pertsonak artatzea edo Ibarra egitea urtean zehar beren jarduerak.

3. Balorazio-irizpideak.

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren eskaerak hautatuko dira (gehienez 100 punturaino).

Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hartzaileak:

- Elkarteko bazkideei bideraturik: 5 puntu arte.
- Biztanleriari orokorrean bideratuak: 10 puntu arte.

Jardueraren eragina:

- Parte hartu edota onura izango duten IBARRAko pertsona kopurua: 5 puntu arte.
- Zailtasun sozialak dituzten herritarrei zuzentzea eta hobekuntza pertsonalean, familiarrean edo bestelakoetan laguntzea: 20 puntu arte.
- Behar bereziak dituzten giza-taldetara zuzentzea: 20 puntu arte.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako esku-hartze eremuaren funtzioak osatzea: 15 puntu arte.
- IBARRAko herriaren premiei erantzuteko jarduera berria izatea: 15 puntu arte.

Elkartea:

- Udal Gizarte Zerbitzuekin izandako lankidetzak: 10 puntu arte.
- Elkarteko zuzendaritza-batzordean emakume eta gizonezkoen parte-hartzean parekidetasuna: 5 puntu arte.
- Elkarteko partaideen artean emakume eta gizonezkoen parekidetasuna: 5 puntu arte.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-lagun tza hauen banaketa norgehiagoka bidez egingo da.

Eskaera bakoitzerako diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da 500 €-tik gorakoa izan.

Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat (edo batzuk) sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa balitz ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, norgehiagokaren prozedurak duen hurrenkera ez da ezarri behar.

LAUGARRENA:

4.- 2016KO EKAINAREN 14AN BURUTURIKO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK

4.1.- SAN BARTOLOME JAIK 2016.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

San Bartolome jaietako esku-programa eta kartelak doan argitaratzeko zerbitzua kontratazko pleguak aztertu dira.

2016ko ekainaren 14ko Kultura eta Gazteria Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: 2016 urterako San Bartolome jaietako esku-programa eta kartelak doan argitaratzeko zerbitzua iragarki gabeko prozedura negoziatu bidez kontratazko pleguak onartzea.

BIGARRENGOA: San Bartolome jaietako esku-programa eta kartelak doan argitaratzeko zerbitzua iragarki gabeko prozedura negoziatu bidez kontratazko deialdian parte-hartzera Tolosaldea Herri Hedabideak S.L. enpresari, Graficas Ibarra enpresari eta Eider Epelde Davila diseinatzaileari gonbita luzatzea.

HIRUGARRENGOA: Eskaintzak aurkezteko epea: Uztailak 4, astelehena.

III. ERASKINA

BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA, IRAGARKI GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ SAN BARTOLOME JAIETAKO ESKU-PROGRAMA ETA KARTELAK DOAN ARGITARATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Plegu honetan jasotako kontratuaren xedea da "IBARRAKO SAN BARTOLOME JAIETAKO ESKUPROGRAMA ETA KARTELAK DOAN ARGITARATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA", plegu teknikoan eta baldintza administratibo partikularren plegu honetan jasotako baldintzei jarraiki. Egin beharreko lana guztira ez da aldez aurretik zehazten eta, beraz, Ibarra Udalak dituen beharren arabera adieraziko dizkio kontratistari kontratuak irauten duen bitartean.

Kontratu honek administrazio izaera du eta plegu honetan nahiz baldintza teknikoaren pleguan ezarritakoari jarraiki beteko da, lege hauetan xedaturikoaz gain: Sektore Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategina- SPKLTB- onartzen duena, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onartzen duena eta aplikagarri zaizkion gainerako araudiak.

2.- EXEKUZIO EPEA.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontratua sinatzen denetik, exekuzio epea hilabetekoa izango da.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratistak San Bartolome jaietako esku-programaren eta kartelaren diseinu eta inpresio gastuak bere gain hartuko ditu.

Ibarrako Udalarentzat ez du inolako kostu ekonomikorik izango.

4. – FINANTZAZIOA.

Kontratistak San Bartolome jaietako esku-programan jartzen den publizitatearen kudeaketa egingo du. Bertatik lortzen diren diru-sarerren bitartez, esku-programaren eta kartelaren diseinu eta inpresio gastuak ordainduko dira.

5.- ORDAINTZEKO ERA.

Kontratista kontratuaren xedea betetzeko legeak ezarritako epean dagokion fakturak ordainduko ditu.

Zerga legediaren arabera egin beharreko atxikipen fiskala zehaztuko da.

6.- BERMEAK.

Kontratu honen izaera dela eta, ez da eskatuko behin betiko bermerik SPKLko 95 art.an xedaturikoari jarraiki, kontratu honen xede den zerbitzuak ez baitu arrisku berezirik.

7.- KONTRATUA EGIKARITZEA.

Kontratua gauzatuko da kontratatzailearen arriskura.

Kontratua plegu honetan jasotzen diren baldintzei lotuta egingo da, eta espedienteari loturiko zehaztapenei, administrazioak kontratistari emandako jarraibideak jarraituz.

Kontratistari egotzi dakizkiokeen akats edo erruengatik kontratuaren martxa oztopatzen bada, Udalak beharrezko diren neurriak hartu ahal izango ditu gauzak bere onera itzultzeko.

8.- KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK.

Kontratistak lan araudian jasotako legezko xedapenak beteko ditu, Gizarte Asegurukoak eta laneko segurtasun eta garbitasun arlokoak. Administrazioa betebeharrak ez betetzeagatik arduratik salbuetsita geratzen da.

9.- KONTRATISTAREN ARDURA KONTRATUA BURUTZEAN HIRUGARRENEI EGINDAKO KALTEEZ.

Kontratista izango da arduradun kontratua burutzean egin daitezkeen kalte eta galerez, horrela agintzen baitu SPKLko 214 art.an.

Horretarako, esleipendunak kontratua sinatzeko unean honako agiriok aurkeztu beharko ditu: ardurazko zibileko aseguruaren kopia, indarrean dagoena eta kontratu honetako zerbitzua emateko gaitzen duen lanbideko arriskuak estalizko dizkiona eta kontratuaren berritzeak, honek irauten duen bitartean.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

10.- KONTRATUAREN ALDAKETAK.

Administrazioak kontratua alda dezake, interes publikoko arrazoiengatik, aurreikusi gabeko arrazoiengatik, eta kontratistak ez du kalte-ordainerako eskubiderik izango, hori guztia SPKLko 308 art. xedaturikoari kalterik gabe.

11.- BERME ALDIA .

Kontratu honen izaera dela eta. Ez da berme aldirik aurreikusten.

12.- KONTRATISTARI ZIGORRAK BETEBEHARRAK EZ BETETZEAGATIK.

Kontratistak, bere arrazoiak direla eta, kontratuaren epean atzerapena izaten badu, bai epe osoan bai aldikako epean, Administrazioak erabaki dezake bertan behera uztea.

Bertan behera uzteak ez du baztertzen Ibarra udalak duen eskubidea kalte-ordainak eskatzekoa egindako kalteengatik eta baita kontratua bertan behera uzteko.

13.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK.

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeak SPKLko 223 eta 308 art.etan jasotakoak.

14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.

Administrazioaren eskumenen artean daude kontratua interpretatzea, bere betebeharrak sorten dituen zalantzak argitzea, interes publikoagatik aldatzea, bertan behera uztea eta honen ondorioak aztertzea, beti ere Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak ezarritako mugetan eta Herri Administrazioetako Kontratuen legearen Erregelamendu Orokorrek ezarritakoen mugetan.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

15.- ADJUDIKAZIO PROZEDURA ETA MODUA.

Kontratu hau esleitzeko da iragarki gabeko prozedura negoziatu bidez eta SPKLko 169 eta 178 art.etan xedaturikoari jarraiki, lege horrek 177.2 art.arekin loturiko 174 e) art.an jasota dagoelako.

Lehiaketa esleitzeko balioko duten irizpideak garrantzi handienetik txikienera eta ematen zaien ponderazioaren arabera honakoak dira:

a) Memoria teknikoa: **30 puntu**. Zerbitzua emateko modua argi zehaztuko da, eta baita administrazioarekin harremana eta zerbitzua emateko pertsonen, bitartekoen zehaztapena ere.

Parte-hartzaileekin negoziazioak irizpide horien ingurukoak izango dira eta baita edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistikaren inguruan, beti ere kontratuaren helburuari lotua

16.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Kontratazio Prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun juridikoa duten pertsona natural nahiz juridikoen SPKLko 54 art.an ezarritakoaren arabera era eta SPKLko 60 art.an ezarritako kontratatzeko debekuetan ez daudenak. Pertsona horiek kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko nahikoa egiaztatu beharko dute. Kaudimena egiaztatuko da 17. klausulan ezarritako bitartekoen arabera.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Halaber, beren kabuz edo horretarako gaitasun nahikoa duen baimendutako pertsonak ordezkaturik egin dezakete. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa bertako kide bat aurkeztu bada, horretarako gaitua dagoela dioen egiaztagiria aurkeztuko du. Batean nahiz bestean, aipaturiko kontratatze ezintasun zioek erasaten diote ordezkariari.

Lizitatuzaileen helburua izango da kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena duten jarduerak burutzea izango da eta berau aurrera eramateko beharrezko giza baliabide eta baliabide materialez hornitutako antolakuntza izatea.

17.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Prozedura honetan parte hartzeko proposamenak gonbidapenean ezarritako epean aurkeztu beharko dira. Proposamenak udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztuko dira, Ibarra (Gipuzkoa) San Bartolome Plaza 2 zk.an asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 14:00ak arte.

Epearen ondoren aurkezturiko proposamenak, ez dira onartuko nahiz eta Postetxean epea amaitu baino lehen entregatu zirela egiaztatu, salbu Kontratazio Organoari telex, fax, telegrama edo korreo elektronikoz bidaltzen ez zaion bidalketa egunaren egiaztagiria, korreoz bidali zen egun berekoa.

Lizitatuzaileek bi gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte (A eta B) eta bakoitzean honako izenburu hau agertuko da: “IRAGARKI GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ SAN BARTOLOME JALETAKO ESKUPROGRAMA ETA KARTELAK DOAN ARGITARATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen eta abizenak eta zer nolako izaerarekin egiten duen azaldu beharko du eta bi gutun-azalak sinatuta egongo dira.

“A” gutun-azala izen hau eramango du: “KONTRATATZEKO GAITASUN ETA KAUDIMENA” eta agiriok izango ditu:

a) Parte hartzaile edo honen ordezkariaren Nortasun Agiriaren fotokopia. Beste pertsona edo entitate baten izenean ari bada, gainera, notario ahalmena.

b) Lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura MERKATARITZA-ERREGISTROAN izen emanda eta nortasun fiskalaren zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legearen arabera izen ematea derrigorrezko denean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eskritura edo eraketa agiri bidez, estatutu edo fundazio egintza bidez, eta bertan azalduko dira jarduera arautzeko arauak, inskribatuak, hala badagokio, dagokion Erregistro ofizialean.

Atzerriko enpresek obratzeko gaitasuna egiaztatuko dute Sektore Publiko Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 9 eta 10 art.etan ezarritakoaren arabera.

c) SPKLko 60 art.an zerrendaturiko Kontratatze ezintasunen artean ez dagoela dioen aitorpena (I ERANSKINA). Hor jasoko da zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean dagoela dioen agiria, bi baldintza hauen ziurtagiriak egiaztatzen ez badira behintzat.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

d) JEZan alta ematearen egiaztagiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Ohiko ekitaldiari dagokiona bada, alta aurkeztuko da edo JEZaren azken ordainagiria. Bestelako kasuetan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren aitorpen arduratsua.

e) Kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren egiaztatzerako, erakunde finantzarioen txostena.

f) Lizitatuak asko, Aldi Baterako Enpresa –Elkartea osatuz aurkeztu badira, bakoitzak egiaztatu beharko du aurreko ataletan azalduko gaitasun eta kaudimena eta horrez gain konpromisoa formalki Aldi baterako Enpresa-elkartea osatzeko adjudikazio-hartzaile suertatuz gero. Proposamenaren, horrez gain elkarteari alde bakoitzak kontratuko zati beteko duen argituko dute, bakoitzaren kaudimen baldintzak aztertze aldera.

g) Atzerriko enpresen kasuan, edozein eratako espainiar epaitegi eta auzitegiaren menpe jartzeko aitortza, kontratutik sor daitezkeen edozein gorabehera argitzeko. Hala badagokio, lizitatuakari dagokion atzerriar jurisprudentziari uko egingo lioke.

Eskatutako agiriak jatorrizkoak izango dira edo Administrazioak nahiz notarioak konpulsaturiko edo kautotutako kopiak.

Proposamenak aurkeztu daitezke a), b), c), d), e) f), eta g) letretan jasotako agiririk gabe. Kasu horretan eskaintza egokiena egin duen enpresak adjudikazio aurretik aurkeztuko du eta horrela adieraziko du "A" gutun-azalean; horrekin batera konpromiso bat sinatuko du eskaintza ekonomiko hobereana egiten duen enpresa suertatua gero, dokumentazio guztia aurkezteko 10 eguneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurreko a), b) eta c) ataletan adierazitako baldintzak egiaztatu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatuak eta Enpresa Saikatuaren erregistro Ofizialeko egiaztagiri baten bidez edo SPKLaren 73 art.ak xedaturiko komunitate egiaztagiri bidez. Azken kasu honetan egiaztagiriarekin batera lizitatuakariaren aitorpen arduratsua aurkeztuko da eta bertan adieraziko da egiaztagiriari jasotako baldintzek ez dutela aldaketarik izan.

Behin kontratua esleitura eta errekurtsorik aurkeztu gabe, horiek aurkezteko epea amaituta, interesdunen esku geratuko da proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa. Udalak hilabeteko epean dokumentazio hori eskatzen ez badu, bota daiteke.

"B" gutun-azalak "MEMORIA TEKNIKOA" izenburua edukiko du eta agiriok jasoko ditu:

Zerbitzua aurrera eramateko modu zehatza argituko da. Esku-programa eta kartelak diseinatzeke eta inprimatzeko honako ezaugarri teknikoak kontutan izango direlarik:

1.- Esku-programa:

- *Neurriak: 22 zm x 22zm formatuan*
- *Orrialde kopurua: 24 orrialde, 135 gramoko paper birziklatuan*
- *Azala: 150 gramoko paper birziklatuan*
- *Ale kopurua: 2600 ale*
- *Kolorea: 4 koloretara*



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- *Euskararen erabilera: Udal Ordenantza bete beharko da*
- *Emakumezkoen eta gizonzkoen berdintasunerako legean ezarritakoa betetzea.*
- *Irudien erabilera: Haurren irudiak difuminatuta edota plano orokorrak eta urrutikoak erabiliko dira. Pertsonen irudia iraintzen ez duten argazkiak erabiliko dira.*
- *Iragarki publizitarioen edukia Udalak berrikusi eta onartu beharko du.*

2.- Kartelak:

- *Neurria: 42 zm x 64 zm formatuan*
- *Kolorea: 4 koloretara*
- *Papera: 115 gramoko paper birziklatuan*
- *Kopurua: 300 ale*

18.- ADJUDIKAZIOA ETA GAUZATZEA.

Kontratazio organoak eskaintza hobereana aurkeztu duen lizitatzaileri 10 eguneko epea emango dio, behin jakinarazpena jaso duenetik kontaktzen hasita, ondorengo jarduketak burutzeko:

a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela dioen egiaztagiria aurkeztu, proposamenarekin batera aurkeztu ez baditu. Horrez gain, kontratua gauzatzeko jarritako bitartekoen egiaztagiria.

Kontratazio organoak kontratua adjudikatu beharko du dokumentazio jasotzen denetik hurrengo 5 laneguneko epean.

Esleipenduna Administrazioa etorriko da hamabost laneguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontaktzen hasita, administrazio kontratua sinatzeko.

Esleipendunari egotzi beharreko arazoiengatik kontratua ez bada formalizatzen, Administrazioak berau ezestea erabaki dezake, interesdunaren entzunaldiaren ondoren eta kalte-ordainak ordainduta.

III. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKO ETA ESKUMENEN JURISDIKZIOA

19.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Plegu honen arabera eginiko kontratuak, izaera administratiboa izango du eta bertan jasota ez dagoen guztiari dagokionean, ondorengo legeek xedaturikoa aplikatuko zaio: Sektore Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategina, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartuak eta Herri administrazioetako kontratazioan aplikagarri diren gainerakoak.

Baldintza Administratibo Berezi hauen eta espedienteari oturiko gainerako agiri teknikoaren artean kontraesanik balego, Plegu honetan adierazitakoak izango du indarra.

20.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA.

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuetara jotzea eskatzen badu, kontratistak, SPKLaren hogeita hamaikagarren Xedapen Gehigarriak ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, hain zuzen Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 legeak eta bere garapen araudiak ezarritakoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

21.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ETA SUSTATZEKO UDAL ORDENANTZA BETETZEA.

Euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko udalak duen udal ordenantza bete beharko da.

22.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEA BETETZEA.

4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bete beharko da.

23.- ESKUMENEN JURISDIKZIOA.

Kontratutik eratorriko auzigaiak administrazio-auzietarako jurisdikzioak ebatziko ditu; halere, aldeek beren auzigaiak tartekaritaz konpon ditzakete, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.

AITORPEN EREDUA

.....jn/and, adinez nagusia, NAN.....duena eta.....helbidea duena. Tel:Fax:.....

Aitortzen du herri Administrazioarekin kontratatzeko ahala duela, jarduteko gaitasuna duela eta SPKLaren Testu Bateginak (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) 60 art.an aurreikusitako inolako ezgaitasun baldintzatzen ez dagoela.

Aitortzen du halaber,

- Zerga eta gizarte segurantzetako betebeharretan egunean dagoela, urriaren 12ko APLEOK (1098/2001 ED) 13 eta 14 art.etan aurreikusitako moduan.

- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan "SAN BARTOLOME JAIETAKO ESKUPROGRAMA ETA KARTELAK DOAN ARGITARATZEKO ZERBITZUA KONTRATAZIOA"n, aitorten hau sinatzen dut.

.....2016koren.....n.

Sinadura.

Izaera pertsonaleko datuen babeserako 15/1999 Lege Organikoa betetz, jakinarazten dugu eskatzaileak emandako datu pertsonal guztiak Ibarra Udalaren eskuzko fitxategi automatizatu batean sartuko direla.

Sinatzaileak datuen egiazkotasuna bermatzen du eta Ibarra Udalari emango dio edozein aldaketaren berri.

Datu hauek sortu diren helbururako soilik erabiliko dira eta ez dira hirugarren batzuei utziko interesatuaren baimenik gabe, 15/1999 legeak edo beste lege batzuek jasotako kasuetan izan ezik.

Eskatzaileak bere helbide elektronikoa ematean, Ibarra Udalari baimena ematen dio komunikatzeko, agiriak trukatzeko eta jakinarazteko, eskaera honekin zerikusia duten administrazio egintza guztien balio sinesgarriekin.

Horrez gain, interesatuak erabili ahalko du duen eskubidea Sartzeko, Zuzentzeko, Aurkaratzeko edo Uzteko. Horretarako gutun bat idatzi behar dio Ibarra Udalari (San Bartolome 2, 20.400 Ibarra) edo e-mail bat idatzi (ibarra@ibarra.eus) eta gai hau jarri: "DBLG, ARCO eskubideak " eta NANren fotokopia erantsi, legeak dioena betez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016 urtean Ibarra kultur taldeei diru-laguntzak emateko oinarriak eta eskaera inprimakia aztertzen dira.

2016ko ekainaren 14ko Kultura eta Gazteria Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Ibarra irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA: Ibarra irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak eskatzeko inprimakiari onespena ematea.

HIRUGARRENGOA: Ibarra irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko deialdia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

IV. ERANSKINA

IBARRAKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO KULTURA TALDE ETA ELKARTEEI 2016. URTEAN GARATUKO DITUZTEN JARDUERA ETA EGITARAUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

Hitzaurrea

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarrienak (TAOL), III. Kapituluako 25. eta ondorengo artikuluetan, udalen eskumenen artean esleitzen ditu Ondare Historiko-artistikoen eskumena eta kulturako, aisialdiko eta liburutegi publikoko jardueren edo instalazioena.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak xedatzen dute, tokiko udalen diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan onetsi behar direla, diru-laguntzen ordenantza nagusi baten bidez edo diru-laguntzen hainbat modalitatetarako ordenantza espezifiko baten bidez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2013ko ekainaren 7ko GAOko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra arautuko ditu diru-laguntza hauek emateko baldintza eta prozedura.

2016ko martxoaren 29ko GAOko 57. zenbakian argitaraturik dagoen 2016-2019 urte bitartereko Ibarra Udalaren diru-laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoari jarraiki egiten da honako deialdia.

Diru-laguntzak iragarki, norgehiagoka, objektibotasun eta berdintasun printzipioen arabera emango dira, Herri Administrazioa haiei atxikita baitago, besteak beste, sustapen-jarduerak gauzatzekoan.

1. Xedea.

Oinarri hauen helburua 2016. urtean Ibarra kultura arloan emango diren eta hurrengo paragrafoan aipatzen diren diru-laguntzen emakida arautzeko oinarri zehatzak ezartzea da.

Oinarri hauek aurreikusitako diru-laguntzak bertan jasotako arauak arautuko dituzte eta baita aplikagarri diren eta indarrean dauden 2016ko martxoaren 29ko GAOko 57. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalaren diru-laguntzen 2016-2019 Plan Estrategikoa, 2013ko ekainaren 7ko GAOko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoaren babesean.

2. Diru-laguntzak emateko prozedura.

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagokako erregimenean izango da eta printzipio hauen arabera egingo da: Publizitate, objektibotasun, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik eza. Eskumeneko organoak onartutako deialdi publikoaren bidez egingo da.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Deialdi honen bidez diru-laguntzak emateko zenbatekoa 20.000,00 eurokoa da, 1 0000.430.334.00.00 2016 partidaren kargatutako dena.

Diru-laguntza emateko orduan zehaztuko da bakoitzari emango zaion zenbatekoa edota adjudikazio prozeduran lortutako puntuazioa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zenbateko hori benetakotzat joko da, eta ez dio erreferentziarik egingo kostu osoaren zatikatze edo portzentajeari.

Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa, diru-laguntzak estaltzen ez duena, onuradunaren beraren funtsen bitartez estaliko da edo beste diru-laguntza edo baliabideen bitartez, beti ere, azken hori bateragarria baldin bada oinarri hauetan zehaztutakoarekin. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango inolaz ere, bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 baino handiagoa.

Salbuespen modura, aurrekontua izateagatik edo beste arrazoi bategatik, organo emaileak diru-laguntzen zenbateko osoaren hainbanaketa egin dezake onuradunen artean, aurretik froga-txostena eginda.

4. Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programak

Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat jo daitezke udalerrian garatuko diren kultur jarduera edo programak, bai eta xede-talde gisa Ibarra herriarrak dituztenak ere, honako modalitateak ezberdintzen direlarik:

- a) Kultur jarduerak: Urteko programa
- b) Kultur jarduerak: Jarduera zehatzak.

Diruz lagundutako gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epeen barruan egiten direnak.

Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua aurrera eramateko lege-edo finantza-aholkularitza gastuak, notario-gastuak eta peritu-gastuak diruz lagundu daitezke baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta berorren prestakuntza edo gauzatze egokirako ezinbestekoak badira.

Diru-laguntzaren onuradun den elkarteak edo pertsonak jardueraren antolakuntzak dakartzan ardurak beregain hartuko ditu, aipatu jarduera bermatzen duten dagozkion aseguru-polizak itunduz.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta diru-laguntzaren onuradun den pertsona edo elkartearen artean



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.

5. Onuradunak

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntza 4. artikuluan jasotzen diren jarduera-programaren bat garatu nahi eta oinarri hauetan zein diru-laguntza gaitan aplikagarria den araudian aurreikusitako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten Ibarren egoitza edo ordezkari iraunkorra duten diru irabazi asmorik gabeko izaera duten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak.

Diru-laguntza jaso ahal izango dute legalki eratuta eta Eusko Jaurlaritzako elkarte-erregistroan izena eman eta Ibarren kokatutako eta deialdi honetan ezarritako arloan jarduerak egiten dituzten elkarteak. Ibarren Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 8. artikuluan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Izaera juridiko gabeko pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatu, osatutako elkarteetan kasuan, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Taldearen ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko da, nahikoa ahalarekin onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko, aplikagarri izango baitzaio 38/2003 legearen 11. artikulua.
- b) Zinpeko aitortpena non jasotzen den elkarte desegiteko ezintasuna diru-laguntzaren preskripzio epea amaitu arte, 38/2003 Legearen 39 eta 65. artikuluetan jasotako diru-laguntzaren itzulketa aitortu edo likidatzeko.

6. Baztertuak

Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira ondorengoak:

- a) Epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izan direnak.
- b) Lehiaketa eskaera egin dutenak, edozein prozeduretan kaudimengabeak jo direnak, lehiaketan egonik esku-hartze judizialaren mende daudenak edo lehiaketa legearen arabera ezgaituak izan direnak, beti ere sententzian jasotako inhabilitazio epea amaitu ez bada.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

c) Administrazioarekin eginiko edozein kontratu bertan behera uzteko errudun aitortuak izan direnak.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak sartuta daudenean kontratatzeko bateraezintasun kasuren batean, bakoitzean aplikaziozkoa den legeria espezifikoaren arabera; edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak erregulatzen dituen hautapenezko karguren bat izatea.

e) Zerga obligazioak edo gizarte segurantzari buruzkoak ez betetzea, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena ematerakoan.

f) Beren zerga egoitza dagoenean erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

g) Udal honek edo bere erakunde autonomoek emandako dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.

h) Diru-laguntzak itzultzeko betebeharretan egonik, ordainketak ez egitea (Diru-laguntza itzultzeko prozeduran zordun gisa).

i) Ebazpen irmo bitartez diru-laguntzak jasotzeko zigortua izatea diru-laguntzen Lege Orokorra edo Zergei buruzko legeri jarraiki.

j) Entitatearen ordezkariaren baten bateraezintasun legala, Udaleko pertsonal edo hautatuekin.

k) Era berean, ezingo da diru-laguntzarik eman, Ibarako Udalarekin dituzten zorrenatik premiamendu bidezko kobrantza prozeduretan sartuta edo udal entitate honekin zerga obligazioak bete gabe dauzkaten partikularrei edo entitateei, aipatu zorrak ordaindu eta kitatu arte.

l) Beren jardueraren bitartez, diskriminazioen bat bultzatzen duten erakunde edo pertsonak .

7. Onuradunen eginbeharrak.

Onuradunen betebeharrak hauek dira:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

a) Diru-laguntzak emateko arrazoi den xedea betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzea edo jokabidea hartzea.

b) Hizkuntza irizpideak betetzea: Ibarra udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko irizpideen 32.1 artikulua arabera, honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

1. Ibarra Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek diruz lagundutako beren jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Era berean, ospakizun zehatzetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz ere eman beharko dituzte.

Aurreko paragrafoko elkarte, erakunde, pertsona fisiko edo juridikoek euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko diote lehentasuna.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek puntu honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

o) Diruz lagundutako proiektu edo jardueran genero ikuspegia txertatzea.

p) Udalaren aurrean diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jarduera burutu eta helburua bete dela egiaztatzea.

q) Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen jarduerak onartzea, baita eskumena duten kontroleko organoek, nazionalak nahiz komunitarioek, egiaztatzeko edo finantzen kontrolerako egin dezaketen beste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.

r) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero, diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo gutxienez onartutako diru-laguntzari emandako aplikazioaren egiaztapena egin baino lehen.

s) Eskura izango ditu: Kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplikatu dakioken merkataritza legedian



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita diru-laguntzak arautzen dituen oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da eta.

t) Jasotako diru-laguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.

u) Diru-laguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Ibarra udalaren diru-laguntza jasotzen duen programa, jardura edo ekintzen finantziazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.

v) Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero, jasotako dirua itzuli egin beharko du.

w) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz, diru-laguntza ematen duen organoari jakinarazi behar zaio.

x) Diru-laguntza emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan edo gainerakoetan, erabakitzeke proposamena egin baino lehen, egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, eta gainerakoekin, eta eskatzailearen nortasuna egiaztatzea.

Halere, onuradunari urte osoan emandako diru-laguntzen kopuru metatuak ez baditu 1.000 euro gainditzen, aipatu obligazioak betetzen dituela egiaztatzeke, alderdi horien gaineko erantzukizun aitortpena aurkeztu behar du.

Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatu beharko da taldea ordeztzen duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera diru-laguntza arautzen duten gainerako arauarekin.

y) Diru-laguntzen xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak Ibarra udalak finantzatzen dituela egoki zabalitzea bidezko publizitatea emanaz, baldin eta betebeharrak hori dagokion deialdi, hitzarmen edo ebazpenean exijitu bada.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

z) Jasotako funtsak itzultzea, Ibarraiko diru-laguntzen ordenantza orokorrean xedatutako kasuetan.

8. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.

9. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Deialdi honek aurreikusten dituen diru-laguntzak jasotzeko eskabideak, GIPIIZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta 30 eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko Erregistro Orokorrean.

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin aurkeztu beharko dira:

- n) Diru-laguntzarako eskari-orri normalizatua behar bezala beteta.
- o) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.
- p) Elkartearen estatutuen fotokopia.
- q) Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen (I.F.K.) fotokopia eta erakundearen ardura duen pertsonaren NANaren fotokopia.
- r) Eskaera besteren baten izenean eginez gero, eskatzaileak duen ordezkartzaren egiaztagiria, bai elkarte edo taldeak hartutako akordio bidez, bai ahalduentzearen bidez sozietateen kasuan.
- s) Eskaria egiten duen Erakundeak irekitako Kontu Korrontearen titularitatea ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxa horrek emaniko ziurtagiria.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

t) Instituzio, erakunde eta abarrei eskatutako diru-laguntzen edo, hala bada, jasota dituzten haien aitortpena.

u) Diru-laguntza xede izango duen programaren edo ekintzaren txostena zehaztuta.

v) Programaren edo ekintzaren diru-sarrera eta gastuen aurrekontua.

w) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria (edo hala badagokio, eranskinean dagoen agiria, dagokion moduan beteta).

x) Zinpeko aitortpena, diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batetan sartuta ez dagoela adierazteko. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 2. eta 3. artikuluetan zehaztutakoak izango dira.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Eskaera onartua izanda ere, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

Jarduera baterako diru-laguntza eskatze hutsaren ondorioz, onartu egin beharko da diru-laguntza horren emakida arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritziaren araberako izaera baitu diru-laguntza honek ere.

Eskabideak eta informazioa non eskuratu: Benito Izagirre Kultur Etxean (Euskal Herria kalea, 44), www.ibarra.eus edo 943-670399 telefonoan.

10. Baloratzeko irizpideak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza ematea lehia-erregimenaren bidez erabakiko da; kasu bakoitzean finkatutako irizpideen arabera, diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzen duen diru-laguntza kopurua soilik hautatuko da.

Diru-laguntzak ematerakoan, honako arloak kontuan hartuko dira baldin eta egindako eskarian agertzen badira:

a) Proposatutako programaren ezaugarriak:

50 puntu arteraino, honako alderdi hauen arabera:

1. Proposatutako programaren gizarte-proiektzioa eta bertan beste erakunde batzuek duten inplikazio-maila. (10 puntu)
2. Garatzen den kultur arloan programak euskal kulturari zer ekarpen egiten dion. (8 puntu)
3. Euskararen erabilera sustatzen duen programa izatea. (8 puntu)
4. Antzeko proposamenik ez egotea. (2 puntu)
5. Kolektibo berezietarako jarduerak: 3. adina, ezinduak, etorkinak, etab. (8 puntu)
6. Berdintasuna sustatuko duten programak. (8 puntu)
7. Diruz lagundu beharreko jarduera zehatzek ahalik eta gehien zabaltzea Ibarako herriaren izena eta irudia. (6 puntu)

b) Erakunde eskagilearen ezaugarriak:

30 puntu arteraino, honako alderdi hauen arabera:

1. Erakundeak erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna. (10 puntu)
2. Zuzenean ukituriko pertsona kopurua (matrikulak, lizentziak,...). (20 puntu)

c) Erakundearen finantza-baliabideak:

20 puntu arteraino, honako alderdi hauen arabera:

1. Programaren diru-sarreraren eta gastuaren aurrekontua eta finantzatzeko tasa. (10 puntu)
2. Udalak ematen duen diru-laguntzaz gain, beste finantzaketa iturriak izatea: erakunde publikoak, babesleak,... (10 puntu)

Diruz laguntzekoak izan daitezkeen beste proposamen batzuen programarekin bat ez datozen aldetik izaera soileko diren proiektuak edo elkarteak aurkezten direnean, irizpide nagusia izango da diru-laguntza ematea ziurtatuz programa edo proiektua irizpide hauen arabera gauzatuko dela: Aurrekontuen bideragarritasuna, jarduerarako aurreikusitako defizita, eta hala badagokio, aurreko urteetan jarduera bererako emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bide egokiena dela baloratzen den kasuetan, Udalak Hitzarmen modalitatea ezarri ahal izango du interesatuarekin. Hitzarmen horrek, entitatearen ordain gisa jasoko ditu urteko programak sustatzeko eta zabaltzeko eremuetako ekintza zehatzak garatzea eta gauzatzea.

11. Prozeduraren instrukzioa.

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako organo eskuduna Kultura eta Gazteria Batzordea izango da.

Organo horrek Tokiko Gobernu Batzordeari aurkeztuko dio proposamena. Erabakitzeke proposamen horrek honako hauek jaso behar ditu:

- Eskaeren ebaluazioa.
- Eskatzaile-zerrenda, diru-laguntza jasotzeko proposatuko direnena.
- Diru-laguntzaren zenbateko zehatza.

Prozedura hori erabakitzeke eskumena izango duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

Organo instruktoreak eska diezaieke interesdunei behar adina argibide eta informazio nahiz agiri prozedura izapidetzeko eta, oro har, ebazpena eman behar deneko datuak egiaztatzeke beharrezko direnak.

Diru-laguntza norgehiagoka bidez emango da eta kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, Laguntza kopuru bat aukeratuko da, diruz lagundu diren jarduketan kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duena.

12. Ebazpena

Prozedura hori erabakitzeke eskumena izango duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da. Epea sei hilabetekoa izango da, deialdiaren iragarkiaren egunetik kontatzen hasita, baldin eta organoak berak data atzeratzen ez badu aurrekontu disponibilitatea dela eta.

Gehienezko epe hori igarota, eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ezetsizat joko du bere diru-laguntza eskaera, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legeak 43 art.an aurreikusitakoaren arabera, eskaerak ezetsi egingo dira eskaerak aurkezteke epea amaitu eta hiru hilabetera ebazpenik eman ez bada.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ebazpena oinarri hauetan jasotako baldintza eta irizpideen arabera arrazoituko da, eta prozeduran egiaztatu beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak.

Diru-laguntzaren ebazpenak alderdi hauek jasoko ditu:

- * Onuradunaren identifikazio datuak.
- * Diru-laguntzaren xedea.
- * Emandako gehienezko zenbatekoa.
- * Diruz lagunduko jarduera burutzeko eta zuritzeko epea.

Ebazpenak zehaztuko du ordainketa bakarreko sistema (3.000,00 € baino gutxiagoko diru-laguntzak) edo zatikatuta (%60-%40) eskatutako diru-laguntzaren izaeraren arabera. Eman behar den diru-laguntza zehazteko, kontuan izango da beste irizpide batzuen artean, aurkeztutako eskaerak eta diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak Udalak horretarako bideraturiko aurrekontuan baitan.

13. Diru-laguntzaren zuriketa.

Diru-laguntza emanda, onuradunak honakoa egiaztatuko du:

- c) Emandako zenbatekoa helburua betetzeko bideratu dela eta diruz lagundutako jarduera burutzeko.
- d) Lorturiko emaitzak.

Egiaztatzea behar-beharrezkoa da betebeharra aitortzeko eta likidatzeko.

Pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatuei emandako diru-laguntzak zuritzeko honako agiriok aurkeztuko dira:

4. Egindako jardueraren edo programaren azalpen-memoria, zeinek gutxienez, atal hauek izango ditu:

- a. Programaren edo proiektuaren izena.
- b. Diru-laguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.
- c. Gauzatutako jarduerak, proposatutako helburuak eta lortutako emaitzak deskribatzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- d. Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.
- e. Finantza baliabideen zerrenda: Diru-laguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita beste diru-laguntza batekin edo onuradunekin finantzatutako beste jarduera batzuen ere.
- f. Objektibagarriak diren heinean, pertsona onuradun-eskatzaileen datuak sexuaren arabera bereizita, baldin eta horrelaxe adierazten bada dagozkien oinarrietan.
- g. Ondorioak.

5. Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:

- a. Diruz lagundutako jardueren diru-sarrerren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.
- b. Izandako gastuak eta lortutako diru-sarrerren zerrenda ordenatua eta sekuentzialki zenbatutakoa, kontzeptuka antolatuta eta emaitzak guztira islatzen dituenak. Gastuen zerrendak hau jasoko du:
 - i. Hartzekodunaren identifikazioa.
 - ii. Dokumentuaren identifikazioa.
 - iii. Zenbatekoa.
 - iv. Igorpen data.
 - v. Ordainketa data.
 - vi. Merkataritza zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta hala badagokio, ordainketaren dokumentazio akreditatiboa. Dokumentu horien fotokopiak aterako dira eta konpultsatu egingo dira; kudeaketa zerbitzuak berretsiko ditu eta jatorrizko dokumentuak interesatuari itzuliko zaizkie. Jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak erakunde onuraduneari geratuko dira gutxienez lau urtez. Erosketa tiketak edo ordainagiriak onartuko dira, 20,00 € baino txikiagoak badira eta guztira jasotako diru-laguntzaren %10 gaitzen ez bada.
- c. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrerren eta diru-laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- d. Fakturak ematen dituen erakunde bat BEZetik salbuetsita badago, salbuespen hori dagoela berresten duen erakunde eskudunak emandako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.
- e. Langileei dagozkien gastuak soldata-gastu gisa justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Lan kontratuen kopiak, hartzaileak sinatutako dagozkien nomina ordainduak, edo hala badagokio, bankuko abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizatu izanaren ziurtagiriak.
- f. Hartzekodunen ordainketa ziurtagiria banku zordunketa bidez egin beharko da, modu zuzenean sinatutako "jaso agiria", edo aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren beste dokumentu-ziurtagiri bat.

6. Programa edo jardueraren propagandarako egin diren kartelen kopiak.

7. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalaren nahiz Foru Ogasunaren zergak kitatuta dituela egiaztatzen duen agiria.

Udalak, dagozkion bide guztiak erabiliz, emandako diru-laguntzen erabilera aztertu ahal izango du.

14. Diru-laguntza justifikatzeko epea.

14.1.- Urteko programazioa: 2017ko otsailaren 24a.

14.2.- Ekintza puntualak: Ekintza gauzatu eta 45 egun naturaleko epean justifikatuko da.

2017ko lehiaketaren ondorioz jaso beharrekoa ez da aurreko urtekoa zuritu arte jasoko.

15. Diru-laguntzaren ordainketa.

Ordainketa egingo da onuradunak egiaztatzen duenean diru-laguntza eman zitzaienezko helburua bete dela eta jarduera burutu izana eta gastua egin izana justifikatzen duenean.

Ez da ordainketarik egingo onuraduna zerga betebeharretan eta gizarte segurantzako betebeharretan egunean ez bada, edo zorduna bada eta ebazpen bidez itzulketa agindu bada.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ordainketa zatikatuen bidez ordainduko da, diruz lagundutako jarduerak burutzen diren neurrian eta aurkeztutako justifikazioaren arabera zenbatekoa emango da oinarri hauei jarraiki.

15.1.- Urteko programazioa.

Diru-laguntzak bi epetan ordainduko dira: Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari diru-laguntzaren %60 ordainduko zaio. Gainerako %40 jarduera edo egitasmoaren justifikazioari onespina ematen zaionean ordainduko zaio.

15.2.- Ekintza puntualak.

c) Hiru mila eurotik beherako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Diru-laguntzaren %100 ekintza gauzatu baino astebete lehenago ordainduko zaio.

d) Hiru mila eurotik gorako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Ekintza gauzatu baino astebete lehenago diru-laguntzaren %60 ordainduko zaio. Gainerako %40 ekintzaren justifikazioari onespina ematen zaionean ordainduko zaio.

16. Ordainketa aurrerakina.

Diru laguntza ematen duen organoak, ordainketa aurrerakinak erabaki ditzake onuradunei emandako diru- laguntzetan, diru-laguntza horien jarduketari loturiko finantzazio beharretarako.

17. Emandako diru-laguntzen aldaketak.

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gaitzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du eta jasotako dirua itzultzera behartuko da.

18. Publizitatea.

Diruz lagundutako jarduerari buruzko publizitatean, beti Ibarra Udalaren lankidetzari adierazi beharko da.

Propaganda, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz ere egin beharko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntzen onuradunek konpromisoa hartuko dute emakumeentzat iraingarria edo baztertzaileria izan daitekeen propagandarik ez erabiltzeko.

19. Kontrol eta jarraipena.

Diru-laguntzen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Diru-laguntzen finantza kontrola Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Oinarri hauetan arautzen den diru-laguntza sistema Ibarra Udaleko kontuhartzaileria departamentuak aurrera eraman dezakeen kontrol finantzarioaren mende egongo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

20. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren itzulketa araubideari.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 46. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

21. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: Ibarra Udalaren Diru-laguntzen



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ordenantza Orokorrean 50. artikuluan ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena.

22. Interpretazioa.

Oinarri hauetan hutsuneak egonez gero, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean eta azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean araututakoa kontuan izango da.

23. Araudi osagarria.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartuta legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

Kultur ekintza puntualak eta urteko programazioa burutzeko diru-laguntzak Eskaera orria

ERAKUNDE ESKATZAILEA

IZENA:			IFK
Helbidea	Herria	PK	
Tel.	Web gunea		E-posta

LEGEZKO ORDEZKARIA

IZEN-DEITURAK			NAN
Helbidea	Herria	PK	
Kargua	Tel.		E-posta

ELKARTEAREN DATUAK

Bazkide kopurua:	Emakumeak:	Gizonezkoak:	Bestelako generoa/identitatea*:
Noiz sortua?		Kontratutako langileak:	

* Bere burua ez emakumetzat, ez gizontzat definitzen duten pertsonak, hala nola: transexualak, transgenderoak, intersexualak eta bestelako gorputz-errealitateak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Baimena ematen duzu Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak eta Gizarte Segurantzako diruzaintza nagusiak Ibarra Udalaren esku jar dezaten erakunde eskatzaileak zerga alorrean nahiz gizarte segurantzaren alorrean dituen betebeharren inguruko informazioa? (markatu x batez zure aukera)

Bai, baimena ematen dut:

Ez, ez dut baimenik ematen, nik ekarriko ditut:

Hemendik aurrera gurekiko harremana euskara hutsean eduki nahi baduzu, adieraz ezazu x batez laukian. Bestela euskaraz eta gazteleraz nahi duzula ulertuko dugu. Euskara hutsean bai:

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, euroko dirulaguntza eskatzen dut eskabide honetan azaldutako jardura egiteko.

Era berean, honako hau adierazten dut:

- 1.- Eskabide-orri honetan emandako argibide eta datuak egiazkoak direla.
- 2.- Ordezkatzen dudako erakundeak ez duela diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapenik jaso, eta ez daukala horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne; emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritik.
- 3.- Azpian izenpetzen duenak, erakundearen ordezkari gisa bere gain harturik, hitz ematen du eskaera honen ondorioz diru laguntzarik jaso gero bertan ezarritako baldintza guzti-guztiak beteko dituela; eta, bestela, hartutako diru laguntzaren zenbatekoa itzuli egingo duela.

Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua

Lekua eta data: n. 2016ko ren an

Izaera pertsonaleko datuen babeserako 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dugu eskatzaileak emandako datu pertsonal guztiak Ibarra Udalaren eskuzko fitxategi automatizatu batean sartuko direla.

Sinatzaileak datuen egiazkotasuna bermatzen du eta Ibarra Udalari emango dio edozein aldaketaren berri.

Datu hauek sortu diren helbururako soilik erabiliko dira eta ez dira hirugarren batzuei utziko interesatuaren baimenik gabe, 15/1999 legeak edo beste lege batzuek jasotako kasuetan izan ezik.

Eskatzaileak bere helbide elektronikoa ematean, Ibarra Udalari baimena ematen dio komunikatzeko, agiriak trukatzeko eta jakinarazteko, eskaera honekin zerikusia duten administrazio egintza guztien balio sinesgarriarekin.

Horrez gain, interesatuak erabili ahalko du duen eskubidea Sartzeko, Zuzentzeko, Aurkaratzeko edo Uzteko. Horretarako gutun bat idatzi behar dio Ibarra Udalari (San Bartolome 2, 20.400 Ibarra) edo e-mail bat idatzi (ibarra@ibarra.eus) eta gai hau jarri: "DBLG, ARCO eskubideak " eta NANren fotokopia erantsi, legeak dioena betez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Proiektuaren ezaugarriak

Proiektuaren izena

Proiektuaren azalpen laburra:

Proiektu mota (Markatu laukian zein aukerarako aurkeztu nahi duzun eskabidea)

- Urteko programazioa
 Ekintza puntuala

Proiektuaren iraupena

Proiektuaren hasiera data:

Proiektuaren amaiera data:

Proiektuaren gai nagusiak

Markatu lau lauki gehienez.

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> Herri nortasuna | <input type="checkbox"/> Kulturartekotasuna |
| <input type="checkbox"/> Ohiturak | <input type="checkbox"/> Turismo kulturala |
| <input type="checkbox"/> Ondarea | <input type="checkbox"/> Gastronomia |
| <input type="checkbox"/> Artea eta kultura | <input type="checkbox"/> Musika |
| <input type="checkbox"/> Historia | <input type="checkbox"/> Dantza |
| <input type="checkbox"/> Animazio soziokulturala | <input type="checkbox"/> Arte eszenikoak |
| <input type="checkbox"/> Aisialdi hezitzailea | <input type="checkbox"/> Zinema |
| <input type="checkbox"/> Besterik (zehaztu): | |



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Proiektuaren helburu nagusia

--

Jarduera nagusiak

Jardueren hartzaileak

Zehaztu zeintzuk izango diren (sexua, adin tartea, etab.)

--

Euskararen erabilera

--



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zehaztu ezazu:

- Euskararen erabilera jardueretan erabiliko diren dokumentuetan
- Euskararen ahozko erabilera jardueretan

Genero ikuspegia. Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak.

Zehaztu proiektua garatzerakoan nola hartuko diren aintzat emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak.

Aurrekontua: gastuak eta sarrerak

Azalpena	Aurreikuspena
Sarrerak:	
Proiektuaren berezko diru sarrerak (publizitatea, baliabide propioak...)	€
Erakunde pribatuen diru laguntzak:	€
Herri erakundeen diru laguntzak:	€
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza	€
- Eusko Jaurlaritzaren laguntza	€
- Beste herri erakundeen laguntza	€
- Ibarra Udalarari eskatzen dion laguntza	€
Beste batzu:	€
GUZTIRA SARRERAK	€



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gastuak ⁽¹⁾	
	€
	€
	€
	€
	€
	€
	€
	€
GUZTIRA GASTUAK ⁽²⁾	€

Ordainketak bideratzeko datuak

- (1) Mesedez, zehaztu gastuaren deskribapena.
- (2) Aurrekontua orekatu: Gastuen eta sarreren kopuruen guztizkoak berdinak izan behar dira

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA
ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO

A HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK
DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO

(1) NAN/IFZ
DNI/CIF

(2) Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena
Nombre y dos apellidos / Razón Social

Helbidea
Domicilio.....

Posta kodea **Herria**
Código postal..... Población

Herraldea
País.....

B BANKUAREN DATUAK
DATOS BANCARIOS

(1) Bankua

(4) Agentzia



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

(7) KD K/korrontea
DC C/Corriente

(10) Jabea
Titular

OHARRA: Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.

NOTA: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.

C	Bankuaren adostasuna Conforme banco
	Sinadura eta zigilua Sello y firma

D	Hirugarrenaren adostasuna Conforme tercero
	Sinadura eta zigilua Sello y firma

E	Sail edo Erakundearen onespina Vº Bº Dpto. u Organismo
	Baimendutako sinadura eta zigilua Sello y firma autorizada

Data / Fecha

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO	
<p><u>INPRIMAKIAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK</u></p> <ul style="list-style-type: none">Orain baino lehenago Ibarra Udalarekin aritu ez diren eskatzaileek alta hartu beharko dute, "Hirugarrenaren datuen alta" izeneko inprimakia beteaz.Alta hartuta egon arren, banketxez edo/eta kontu korrontez aldatu duten eskatzaileek ere aldaketak sartzeko "Hirugarrenaren datuen alta" izeneko inprimakia bete beharko dute. <p>A) Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.</p> <ol style="list-style-type: none">- Pertsona fisikoak: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo, atzerritarren kasuan, pasaporte zenbakia. - Pertsona juridikoak: identifikazio fiskaleko kodea.- Pertsona fisikoak: izena eta bi abizen. - Pertsona juridikoak: izena edo helbide soziala. <p>B) Banku-datuak.</p> <ol style="list-style-type: none">- Bankuaren kode eta izena.- Agentziaren kode eta izena.- Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol digitua eta zenbakia adieraziko da.- Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoen kasuan, eta izena edo helbide soziala, pertsona juridikoen kasuan.	<p><u>INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACION</u></p> <ul style="list-style-type: none">Todas aquellas entidades que con anterioridad no hayan actuado ante el Ayuntamiento de Ibarra deberán darse de alta cumplimentando, a tal efecto, el impreso "Alta de Datos Tercero Interesado".Todas aquellas entidades que, una vez dadas de alta, hayan modificado sus datos bancarios, también habrán de notificar la correspondiente modificación cumplimentando, a tal efecto, el impreso "Alta de Datos Tercero Interesado". <p>A) Datos identificativos de la persona física o jurídica según se indican a continuación.</p> <ol style="list-style-type: none">- Personas físicas: número de documento nacional de identidad, número de identificación fiscal o número de pasaporte si se trata de extranjeros. - Personas jurídicas: código de identificación fiscal.- Personas físicas: nombre y dos apellidos. - Personas jurídicas: nombre o razón social. <p>B) Datos bancarios.</p> <ol style="list-style-type: none">- Código y denominación de la entidad bancaria.- Código y denominación de la agencia.- Dígito de control de la cuenta y el número de cuenta del titular en la entidad bancaria.- Nombre y dos apellidos en el caso de personas físicas y nombre o razón social en el caso de personas jurídicas.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

<p>C) Bankuaren sinadura eta zigilua, bankuaren datuak ziurtatzeko.</p> <p>D) Doakion hirugarrenaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.</p> <p>E) Ibarra Udaletxeak betetzeko.</p> <p>DOKUMENTAZIO EUSKARRIA</p> <p>Nortasun agiri nazionalaren, edo atzerritarren kasuan pasaportearen, edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia erantsi beharko zaio.</p>	<p>C) Firma y sello de la entidad bancaria certificando los datos bancarios.</p> <p>D) Firma y sello del tercero interesado, certificando la corrección de los datos que figuran en el documento.</p> <p>E) A rellenar por el Ayuntamiento de Ibarra.</p> <p>DOCUMENTACIÓN SOPORTE</p> <p>Se adjuntara fotocopia del documento nacional de identidad, pasaporte en el caso de extranjeros, o tarjeta de identificación fiscal.</p>
--	---

Dokumentazioa aurretik aurkeztu izanaren aitortpena

ZINPEKO EDO ARDURAPEKO AITORTPENA	
ENTITATE ESKATZAILEA	
Izena	IFZ
Legezko ordezkariaren izen-abizenak	NAN
AZALPENA	
<p>Aipatutako erakunde eskatzailearen ordezkari gisa, ondorengo agiriak dagoeneko Ibarra Udalari aurkeztu direla eta indarrean jarraitzen dutela aitortzen dut:</p> <p>(markatu agiriak)</p> <p><input type="checkbox"/> Entitate eskatzailearen estatutuak edo eratze eskritura.</p> <p><input type="checkbox"/> Entitate eskatzailearen legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.</p> <p><input type="checkbox"/> Legezko ordezkariak duen boterearen kreditazioa.</p> <p><input type="checkbox"/> Entitate eskatzailearen IFZren kopia.</p>	
Zehaztu agiriok non eta noiz aurkeztu diren:	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

<input type="checkbox"/> KULTURA ETA GAZTERIA	<input type="checkbox"/> EUSKARA ETA HEZKUNTZA
<input type="checkbox"/> KIROLAK	<input type="checkbox"/> Beste bat (zehaztu):
AGIRIAK AURKEZTUTAKO DATA:	
ADOSTASUNA	
<div style="display: flex; justify-content: space-between; margin-top: 20px;"> <div>Lekua eta data</div> <div>Zigilua</div> <div>Legezko ordezkariaren sinadura</div> </div>	

Beharrezko dokumentazioaren zerrenda

(adieraz ezazu x batekin aurkezten dituzun agiriak)

<input type="checkbox"/>	1.- Eskabide-inprimaki hau, behar bezala betea eta erakunde eskatzailearen izenean legezko ordezkaria den pertsona baimenduak sinatua.
<input type="checkbox"/>	2.- Estatutuen fotokopia (pertsona juridikoaren izaeraren indarrez estatuak edukitzea beharrezkoa bada indarreko legeriaren arabera) edo, erakundearen izaeraren arabera eratze-eskriturarena.
<input type="checkbox"/>	3.- Pertsona juridikoaren legezko ordezkari den pertsona fisikoaren NANren fotokopia.
<input type="checkbox"/>	4.- Pertsona juridikoaren legezko ordezkariak eskaera egiten duen egunean duen boterearen kreditazioa, bai ahalordearen eskrituraren kopiaren bidez bai, hala badagokio, dagokion organoak emandako ziurtagiriaren bidez.
<input type="checkbox"/>	5.- Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren txartelaren fotokopia.
<input type="checkbox"/>	Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 35. f) artikuluan agindutakoari jarraituz, goiko 2., 3., 4. eta 5. ataletan eskatutako agirietakoren bat edo gehiago Administrazio honetan lehenago ere aurkeztua izan bada eta indarrean jarraitzen badu(te), kasu horretan, erakundearen legezko ordezkariak egindako aitortpena aurkeztu beharko da, eta bertan agiri horiek



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	gutziz indarrean daudela adieraziko da, Ibarra Udaletxeko zein sailetan eta zein egunetan aurkeztu, edo hala badagokio, eman ziren zehaztuz.
<input type="checkbox"/>	6.- Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiri eguneratua. Organo eskudunak igorri beharko du. Agiriak balioa izateko, igortzen den egunetik eskabidea aurkezten den eguna arte ezin izango dira sei hilabete baino gehiago igaro. Hala ere, erakunde onuradunak gai honen inguruan eskatzen zaizkion egiaztagiria guztiak aurkeztu beharko ditu, prozeduraren fase guztiak garatzen diren bitartean.
<input type="checkbox"/>	7.- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiri eguneratua. Organo eskudunak igorri beharko du. Agiriak balioa izateko, igortzen den egunetik eskabidea aurkezten den eguna arte ezin izango dira sei hilabete baino gehiago igaro. Hala ere, erakunde onuradunak gai honen inguruan eskatzen zaizkion egiaztagiria guztiak aurkeztu beharko ditu, prozeduraren fase guztiak garatzen diren bitartean.
<input type="checkbox"/>	- Aukeran, erakunde eskatzaileak proiektua edo jarduera hobeto baloratzeko egoki ikusten duen edozein dokumentazio aurkeztu ahal izango da.

5.-GALDERA ETA ESKAERAK.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta hamabost direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.